thinking Fadura
Getxoko Kirol Parke Berria
Herritarrek parte hartzeko prozesua,
Fadurako kirol-parkearen paisaia- eta hiri-
antolamenduaren aurreproiektua egiteko
Getxo
KIROLAK
bizi ezazu
www.thinkingfadura.eus

Agiri honetan,herritarrek Fadurako kirol-parke berriaren diseinuan parte hartzeko eta aurreproiektua egiteko prozesua dago jasoa. Prozesu hori 2018an gauzatu zen, *Thinking Fadura. Getxoko Kirol Parke Berria* proiektuaren esparruan.

thinking **Fadura**

Getxoko Kirol Parke Berria

EGIKARITZE - LABURPENA

Gaur egungo Fadurako Udal Kirol Hiria (Gobela ibaiak zeharkatzen du)Uraren Euskal Agentziak (URA)egindako jarduera-multzo baten barruan dago. Jarduera horien helburua ibaiaren ibilgua eta tarte batzuen ingurua egokitzea eta berriz ere uholderik ez gertatzea da.Kirol-konplexuan aldaketa handiak egingo dituzte eta hori aukera bikaina da zona osoa berrantolatzeko eta hobetzeko eta Getxon kirol-jarduera, bizi-kalitatea eta ohitura osasungarriak sustatzen jarraitzeko.

Gauzak horrela, Getxo Kirolakek ***ThinkingFadura. Getxoko Kirol Parke Berria*** proiektua sustatu zuen 2017an, libre sartzeko parke bat eta Getxo Kirolakekobazkideek kirola egiteko instalazioak uztartzen dituenespazio publiko berri bat diseinatzeko.Proiektuak hiru garapen-fase ditu:lehena, analisia eta diagnostikoa egiteko fasea (2017an egin zen); bigarrena, herritarrek parte hartzeko eta kirol-parke berriaren aurreproiektua diseinatzeko prozesua martxan jartzeko fasea (2018an egin zen); eta hirugarrena, obrak egiteko eta herritarrek parte hartzeko prozesuan sortutako proiektuak sustatzeko fasea (2019an hasiko da).

Txosten hau **herritarrek parte hartzeko eta kirol-parke berriaren aurreproiektua diseinatzeko prozesua** martxan jartzeko bigarren faseari dagokio, zeina 2018ko apiriletik azarora gauzatu baitzen.Getxo Kirolaken asmoa herritarrak engaiatzea da, parkearen etorkizunaz eta hiri-ingurunearekin duen erlazioaz hausnarketa kolektibo, kritiko eta konstruktiboa egin dezaten. Hori, parke publikoen funtsezko



printzipioei jarraikiz eta kontuan hartuta lehen fasean egindako diagnostikoaren arabera parkeak irekia, irisgarria, osasungarria, iraunkorra, inklusiboa eta berritzailea izan behar duela.

thinking Fadura proiektuaren xedea da gaur egungo espazio fisikoak (Fadurako kirol-parke berriaren aurreproiektuan jasota daude), zerbitzuak, erabilerak, erlazioak eta gestionatzeko eta kogestionatzeko moduak berriz diseinatzea eta diseinu horrek eragina izatea.Premisa horiek abiapuntutzat hartuta, parte hartzeko prozesuak **hiru helburu nagusi** ditu:parte hartzeko prozesuaren berri ahalik eta askotariko **pertsona eta agente gehienei ematea**; Getxoko herritarrei eta Getxo Kirolakeko bazkideei prozesuan **parte har dezaten eskatzea**; eta agenteekin, Getxoko herritarrekin eta Getxo Kirolakeko bazkideekin **batera lan egitea**, kirol-parke berriaren diseinuaren funtsezko gaiei buruzko iritziak entzuteko eta jasotzeko.

Fadurako kirol-parkearen eta kirol-eremuen paisaia- eta hiri-antolamenduaren aurreproiektua herritarrek parte hartzeko prozesuan jasotako ekarpenetan oinarrituta dago. Prozesu hori diseinu kolaboratiboaren metodologiaren bitartez gauzatu zen.
Hala, **parte hartzeko prozesua bi ziklotan egin zen**:lehenbizikoan, 2018ko apiriletik uztailera, kirol-parke berriaren **premiak eta aukerak** zehaztuziren; eta bigarrenean, 2018ko abuztutik azarora, lehen zikloko emaitzetan oinarrituriko **ideiak proposatu eta alderatuziren**.

Ahalik eta agente eta pertsona gehienek parte har dezaten, *thinking Fadura* proiektuak **parte hartzeko hainbat bide jarri ditu haien eskura: aurrez aurreko topaketak, plataforma digitala, galdeketak, gizarte-sareak eta posta elektronikoa.** Era horretan, prozesuan askotariko agenteak engaiatu eta haien ekarpenak bildu ditu:Getxoko herritarrak; Getxo Kirolakeko bazkideak; Getxo Kirolakeko bazkide ez izan arren instalazioak erabiltzen dituzten pertsonak;kirol-klub eta -elkarteak; bertako gazteak; instalazioetako langileak; osasuneko, kiroleko eta ongizateko aditu eta teknikariak; ordezkari politikoak eta instalazioak erabiltzen dituzten haurrak, besteak beste.

Parte hartzeko prozesuan guztira 1.699 lagunek parte hartu dute: 764k aurrez aurre, 618k plataforma digitalaren bitartez eta 317k paper-galdeketen bidez.

Komunikazioari dagokionez, *thinking Fadura* proiektuan kanalak konbinatzea izan da profil desberdinak dituzten eta informatzeko eta jarduteko modu desberdinak erabiltzen dituzten pertsonengana heltzeko giltza. Komunikazioa kudeatzeko egitura digitalak erabiltzeaz gain (berezko webgunea, Getxo Kirolaken gizarte-sareak, posta elektronikoa, bat-bateko mezuak eta Fadurako panel digitalak), esparru analogikoan ere antolatu dira komunikazio -ekintzak:argitalpenak Getxoberri astekarian, hedabideentzako prentsa-oharrak, udalerrian jartzeko eta banatzeko kartel eta liburuxkak, informazio-mahaiak hiriko hainbat gunetan eta erakusketak Fadurako atondoan.

Parte hartzeko prozesuan **1.879 ekarpen** jaso dira eta, laburtu ondoren, **218 jarduera -proposamen** egin dira.Proposamen -motei dagokienez, 110 esku-hartze fisikoak dira, 65 parkearen eta parkeko instalazioen kudeaketari buruzkoak eta 43 gobernantzaren ingurukoak.

Parte hartzeko prozesuaren ondoren proposatzen diren jarduerek bi eratako konponbideak jasotzen dituzte. Batetik, zeharkako konponbideak, hau da, proiektu osoari eragiten diotenak eta proiektuaren izaera irekia eta erabileren arteko erlazioa zehazten dituztenak:parkearen eta instalazioen muga eta sarbideak, segurtasun osoa (segurtasuna, babesa eta konektibitatea), mugikortasun jasangarria, irisgarritasun unibertsala eta kudeaketaren

eta gobernantzaren inguruko gaiak.Eta bestetik, espazioen konponbideak, hau da, kirol-parkeko eremu berriei eragiten dietenak:ibai-parkea; eraikin nagusia; kanpoko igerilekuak; garagardotegia, herri-kirolak eta sarbide berria; frontoien eraikina; tenis-pistak; atletismoa, errugbia, hockeya eta erabilera anitzekoa; futbol-estadioa eta Bolueko futbol-zelaiak.

Ibai-parkearen proposamenaren asmoa da aisia-, atseden- eta kirol-jarduerak libre sartzeko parke publiko batean biltzea eta parke horihiri eremuekin eta Bolueko hezegunearekin elkartzea, herritarrek kirolari loturiko natura-ingurune batez gozatu ahal izan dezaten.

Eraikin nagusirako aurreikusitako erabilerak gaur egungo kirol- eta gizarte-erabilera berberak dira, baina erosotasuna eta irisgarritasuna nabarmen hobetuko dira.

Kanpoko igerilekuetan berdegunea eta itzalguneak handitu eta haur-jolasak hobetuko dira eta askaldegi bat jarriko da, besteak beste.

Garagardotegian eta herri kiroletan aritzeko zonan kirol-eremu berri bat, herri kirolak egiteko pabiloi berri bat eta parke publikoaren sarbide nagusi berrietako bat egongo dira.Diseinuak aire zabalean kirola egiteko leku bat, petankan jokatzeko eremu bat eta haurrentzako jolastokiak ere baditu.

Frontoien eraikinerako proposatutako jarduerak eraikinaren egitura birgaitzea, espazioen barrualdea berriz banatzea eta aldagelak eta komunak egokitzea dira. Aurreproiektuan tenis- eta padel-pistak jartzeko instalazio estali berri bat dago.

Errugbian, atletismoan, hockeyan aritzeko eta belodromorako kirol-instalazioak parke publikotik bereizita egongo dira. Gainera, harmailen gaur egungo eraikina handitu egingo da, sarbideak kontrolatzeko eta proposatutako erabilera berrietarako lekua jartzeko.Halaber, kanpoko hockey-pistan harmaila berriak egingo dira.

Gaur egungo futbol-zelaian harmailen eta tribunaren birgaitzea eta handiagotzea aurrekusita dago futbolaren eta errugbiaren

praktikarako Udal Estadio bat izateko, 6000 ikusleentzakogutxienez **Bolueko futbol-zelaietan** egin beharrekoak hauek dira: Bolue 2n eremu estali berriak eta Bolue 1en harmaila berriak jartzea eta Bolue 3ko aldagelak egokitzea.

Herritarrek parte hartzeko eta kirol-parke berriaren aurreproiektua diseinatzeko prozesua martxan jartzeko fasea amaitu ondoren, 2019an hirugarren fasea hasi da. Fase horren helburuada kirol-parke berriaren aurreproiektuan deskribatutako jarduerak gauzatzeko proiektuak eta parte hartzeko prozesuan atzemandako kudeaketarekin eta gobernantzarekin zerikusia duten gaiak martxan jartzea.

AURKIBIDEA

3 EGIKARITZE - LABURPENA

10 AURREKARIAK

16 PROIEKTUAREN FASEAK

18 PARTE HARTZEKO PROZESUA

36 PROIEKTUAREN BERRI EMATEA

42 PROZESUAREN EMAITZAK

46 ARAUDIA

52 PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAK

ZEHARKAKO KONPONBIDEAK

KONPONBIDEAK ESPAZIOEN ARABERA

PLANOAK

AURREKONTUAREN ZENBATESPENA

114 HURRENGO PAUSOAK

116 ERANSKINAK

JARDUERA-PROPOSAMENEN XEHETASUNAK

ESPAZIOEN ARABERAKO KONPOBIDEEN PLANOAK

THINKING FADURA PROIEKTUAREN

AURREKARIAK

Getxoko udalerriak ibilbide ezaguna du kirol-arloan, eta horren erakusgarri da ‘2014an Europako Kirol Hiri’ izendatu eta ‘2015ean Kirol Hiririk Onenaren’ saria jaso izana. Getxo 2020 Estrategian, udalerriaren tokiko garapen iraunkorrerako hiru esparru estrategikoetako baten ardatzak kirolaren eta ongizatearen teknologia eta industriak dira (sormen- eta kultura-industriarekin, turismo kulturalarekin eta ongizate-turismoarekin batera).

Gaur egungo Fadurako Udal Kirol Hiria (Gobela ibaiak zeharkatzen du) Uraren Euskal Agentziak (URA) Fadurako eremuaren hobekuntza hidraulikorakoegindako jarduera-multzo baten barruan dago.Lan horiek ibaiaren ibilgua eta tarte batzuen ingurua egokitzeko eta berriz ere uholderik ez gertatzeko proiektu orokor bati dagozkie. Kirol-konplexuan aldaketa handiak egingo dituzte eta hori aukera bikaina da zona osoa berrantolatzeko eta hobetzeko eta Getxon kirol-jarduera, bizi-kalitatea eta ohitura osasungarriak sustatzen jarraitzeko.

Gauzak horrela, Getxo Kirolakek ***thinking Fadura. Getxoko Kirol Parke Berria*** proiektua sustatu zuen 2017an, libre sartzeko parke bat eta Getxo Kirolakeko bazkideek kirola egiteko instalazioak uztartzen dituen espazio publiko berri bat diseinatzeko.Horretarako, eremua hiri-aktibo gisa berriz aztertu beharra dago, ez bakarrik ohitura osasungarriak hartzea bultzatzeko, baita kirolaren eta ongizatearen teknologia eta industrien inguruan garapen ekonomikoa sustatzeko ere.

Diseinu berriak bat etorri behar du URAk ezarritako legeria eta hirigintza-araudiarekin, eta, gainera, aintzat hartu behar du Fadurako kiroldegiaren eta inguruaren aurreko analisia, gai hauei dagokienez:ingurumena, mugikortasuna, irisgarritasuna, hiri-ingurunea, espazioaren analisia, segurtasuna, jarduera, erabilera, gizarte-ingurunea, kirola, kultura, ekonomia, kudeaketa eta partaidetza.Lehen fase horretan egindako lana agiri honetan dago jasoa: “Fadurako kiroldegiaren hiri-diagnostikoa eta gizarte-mapaketa”.Hona hemen, labur-labur azalduta, ateratako ondorio nagusiak:

Fadurako kirol-instala-zioen kokapena.
Ubicación de las instalaciones deportivas de Fadura.

1- Mantentze-lanetako etxola / 1- Caseta de mantenimiento
2- Helmugako argazkirako etxola / 2- Caseta del foto finish
3- Aldagelak eta harmailak / 3- Vestuarios y gradas
4- Belodromoa eta errugbi-zelaia / 4- Velódromo y campo de rugby
5- Atletismo-pista / 5- Pista de atletismo
6- Tenis-pista estaliak / 6- Pistas de tenis cubiertas
7- Kanpoko tenis-pistak / 7- Pistas de tenis descubiertas
8- Ping-pongerako eremua / 8- Área del tenis de mesa
9- Kanpoko padel-pistak / 9- Pistas de pádel descubiertas
10- Saskibaloi-pista eta areto-futboleko pista / 10- Pistas de baloncesto y pista de futbol sala
11- Hockey-pista / 11- Pista de hockey
12- Erabilera anitzeko pista / 12- Pista multiuso
13- Frontoien eraikina / 13- Edificio de frontones
14- Getxo taldearen futbol-zelaia / 14- Campo de fútbol Getxo
15- Garagardotegiaren eremua / 15- Área de la cervecera
16- Teknika Hobekuntzarako Zentroa / 16- Centro de Perfeccionamiento Técnico
17- Fadurako eraikin nagusia / 17- Edificio principal Fadura
18- Ostalaritzan Prestatzeko Zentroa eta kafetegia / 18- Centro de formación hostelera y cafetería
19- Igerileku mistoa / 19- Piscina mixta
20- Kanpoko igerilekua / 20- Piscina descubierta
21- Eremu teknikoak / 21- Áreas técnicas
22- Bolue 1 eta 2 futbol-zelaiak / 22- Campos de fútbol Bolue 1 y 2
23- Bolue 3 futbol-zelaia / 23- Campo de fútbol Bolue 3

Fadurako zuzeneko esku-hartzea izan dezaketen eremu libreen kokapena.
Ubicación de las áreas libres de posible intervención directa de Fadura.

1- Iparraldeko ertza / 1- Borde norte
2- Erdiko eremua / 2- Área central
3- Tenis ertza / 3- Borde tenis
4- Belodromoaren ekialdeko ertza / 4- Borde este velódromo
5- Gobelako goi-ezkerraldeko ertza / 5- Margen superior izquierda del Gobela
6- Padel eremua eta garagardotegirako sarbidea / 6- Área de pádel y acceso cervecera
7- Gobelaren erdiko ertzak / 7- Márgenes centrales del Gobela
8- Aparkaleku nagusia / 8- Aparcamiento principal
9- Makaleta Etorbideko aparkalekua / 9- Aparcamiento Avenida de los Chopos
10- Gobelako beheko marjinak / 10- Márgenes inferiores del Gobela
11- Hegoaldeko ertza / 11- Borde sur

Ekipamendu publikoak Getxoko eremuan
Equipamientos públicos en el área de Getxo

Hezkuntza // Educación
Kirola // Deporte
Osasuna // Salud
Parkeak // Parques
Berdeguneak //Áreas verdes



EREMUA. Fadurako eremuek dituzten aukerak.

Diagnostikoak Faduraren erabilerak aztertu ditu, nagusiki kirolaren ingurukoak, baina jarduera kultural eta sozialak eta jarduera ekonomikoa sortzeko gaitasuna ere hartu ditu aintzat.Alde horretatik, kirol-instalazioak eta espazio libreak zehatz-mehatz aztertu ditu eta zer oztopok bereizten dituzten eta zer ibilbidek lotzen dituzten atzeman du.

Analisiak ondorioztatu du Fadurak hobetzeko eta aldatzeko ahalmena duela, jarduera fisikoa sustatzeko etaaisiarekin, osasunarekin eta kirolarekin zerikusia duen jarduera ekonomikoa garatzeko, baina, aldi berean, sarbidea kontrolatu beharrak eta kirol-jardueraren berezko arau eta premiek muga handiak jartzen dizkiotela.

HIRIA.Ingurunea eta azpiegiturak.

Fadurako kirol-parkea elementu estrategikoa da Getxoko udalerria garatzeko.Fadurako azpiegiturak analizatu eta eremuari dagozkion hiri-ordenamendua eta hirigintza-araudia (HAPO, errepideak eta ibaiak) aztertu dira, eraikigarritasunak zer aukera eta muga dituen jakiteko.

Inguruaren parte bat garatzen ari dira, batez ere Makaleta etorbidea udal-kale bihurtzeko eta Iturribarri II sektorea garatzeko; era horretan, kirol-parke berria eta hiria lotu egingo dira.

Kiroldegia, gainera, udalerriko beste ekipamendu batzuetatik gertu dago, batez ere ikastetxeetatik. Ekipamendu horiek harreman zuzena dute kiroldegiarekin, ibai ondotik eroso hel daitekeelako, eta Fadurako jarduera osatzen duen saretzat har daitezke.

INGURUMENA.Fadurako natura-ingurunearen balioa eta ahalmena.

Fadura leku pribilegiatuan dago, Gobelarenarroan.Parkea berriz diseinatzea natura-ingurune horretan egin daitezkeen jarduerak dibertsifikatzeko aukera bikaina da. Horretarako, funtsezkoa da ibaiak osatzen duen igarobide ekologikoan ekosistemaren jarraitutasunari eustea, parkeaz gozatzeko irisgarritasuna eta ekosistemaren zaintza orekatzea eta bertako fauna eta flora errespetatzea.

Hobekuntza hidraulikorako eta berriz ere uholdeak ez gertatzeko egindako jarduerak ez ezik, beste gai batzuk ere hartu behar dira aintzat, gertuko errepideek sortzen duten hots-kutsadura eta lurraren kalitatea aztertzeko premia, adibidez.

GIZARTEA ETA EKONOMIA. Tradizioa, berrikuntza, ekimenak eta garatzeko ahalmena.

Getxok kirol-jarduera handia du, nazioartean ezaguna, gainera, elkarte, klub eta kirolari ugari baitaude.Diagnostikoaren arabera, kirol-parkeak kultura eta ekonomia garatzeko aukera handiak ditu.

Getxoko Udalak Fadurako jarduerekin lotura handia duten sektore ekonomikoak (kirolaren eta ongizatearen teknologia eta industriak, sormen- eta kultura-industriak, turismo kulturala eta ongizate-turismoa) garatzea sustatzeko egin duen apustua eta eremuko erabiltzaile eta ekintzaileak oinarri sendoak dira tokiko ekonomiarekin sinergia handiak izan ditzakeen berrikuntza- eta ekintzailetza-ardatz bikain bat sortzeko.

JARDUERA ETA ERABILERA. Jendetza, erabileren intentsitatea eta jarduera-motak.

Faduran jarduerak nola, non eta noiz egiten diren jakiteak balio dukiroldegiaren funtzionamendua eta erabiltzaileen ohiturak askoz hobeto azaltzeko eta jarduera eta espazioen eskaria edo haien gaineko interesa ebaluatzeko.

Sarbideko datu anonimoei esker kiroldegiaren erritmoaren berri jakiten da. Datu horien arabera, instalazioak astean erabiltzen dira gehien, eta udan jarduerak behera egiten du.Halaber, adinaren eta generoaren arabera jarduera-motak desberdinak dira (ohiko jarduerak edo denboraldiko ikastaroak).Espazioak noizean behin erabiltzen dituenik ere bada:elkarretaratzeak edo ospakizunak egiteko, joko eta kirol informaletan aritzeko, etxeko animaliak ateratzeko eta abar.

MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA.Fadura herritar guztiek eskura izatea eta erabiltzea.

Fadurako instalazioak erabiltzen dituzten pertsonen mugikortasun-ohiturei buruzko azterketak dauden zailtasunei buruzko ikuspegi zabala eskaintzen du, eta zailtasun horiek konpontzeko neurriak hartzeko balio du. Neurri horietako batzuk dira, adibidez, aparkalekuak optimizatzea eta seguruago bihurtzea eta mugitzeko baliabide jasangarriagoaketa osasungarriagoak erabiltzea sustatzea.

Halaber, kiroldegiaren muga fisikoak aztertuz espazio publikoak hobetzeko informazioa jasotzen da. Hobekuntza horiek dira, esaterako, oztopo fisikoen ordez pertsona guztiak (haien egoera edozein dela) erraz sartu ahal izateko kontrol-sistemak jartzea eta Getxoko leku berdingabe honek duen kirol-, jolas- eta osasun-ahalmenari etekina ateratzeko ibilbideak diseinatzea.



← Kirol-jardueraren maiztasuna.
Iturria: Kirolaren Europako Hirirk Onena gisa hartzeko hauta-gaia, 2014.

Frecuencia de la actividad deportiva.
Fuente: Candidatura para el reconocimiento de Mejor Ciudad Europea del Deporte 2014.



Getxoko pertsonek kirola egitea.
Iturria: Kirolaren Eu-ropako Hirirk Onena gisa hartzeko hauta-gaia, 2014.

Adopción de la práctica deportiva por las personas de Getxo.
Fuente: Candidatura para el reconocimiento de Mejor Ciudad Europea del Deporte 2014.

ERRESERBAK // RESERVAS

Zerbitzua Servicio	Abonatuak Abonados/as	Erabiltzeak Usuarios/as	Guztira Total
Pilotalekua/Frontón	2.124	477	**2.601**
Belar artifizialeko areto-futbola/Fútbol sala hierba artificial	204	79	**283**
Poliki-roldegiko pabiloia/Pabellón polideportivo	51	139	**190**
Padeleko pista estalak/Pádel cubiertas	7.395	276	**7.671**
Padeleko pista estaligabeak/Pádel descubiertas	2.274	277	**2.551**
Teniseko pista estalak/Tenis cubiertas	5.157	699	**5.856**
Teniseko pista estaligabeak/Tenis descubiertas	813	237	**1.050**
Guztira/ Total	18.018	2.184	**20.202**

← Faduruko kirol-instalazioen erreserba kopurua.
Iturria: Getxo Kiroiak 2016ko Memoria.

Número de reservas de las instalaciones deportivas de Fadura.
Fuente: Memoria Getxo Kiroiak, 2016.

GIZARTE-ANIZTASUNA. Gizarte-aniztasuna eta inklusibotasuna Faduran.

Parte hartzeko prozesua inklusiboa izan dadin, funtsezkoa da Getxoko eta Faduruko gizarte- eta kultura-aniztasuna zaindu eta landu beharreko balio nagusietako bat dela eta hiriko bizitzaren esparru bakoitzak kolektibo desberdinetan eragin desberdinak dituela ulertzea.

Parke berriaren diseinuak, baldin eta elkarbizitza errazten duen espazio publiko atsegin eta askotarikoa sortu nahi badu, ezinbestekoa du pertsonen errealitatea kontuan hartzea: mugitzeko ohiturak, jarduera gustukoenak, zaintzako eta lana eta familia bateragarri egiteko zereginak, kalteberatasuna eta segurtasunaren pertzepzioa, adibidez. Hori guztiapertsonen generoaren, gaitasunen, premien, adinaren eta egoera fisiko eta psikikoaren arabera.

Orobat, espazio publikoaren erabilera, kirola eta aisia funtsezkoak dira kultura askotarikoa den inguruneetan inklusioko eta komunitateasortzeko prozesuetan. Kulturartekotasunaren paradigmak helburu horiek lortzen lagunduko digu.

SEGURTASUNA.Hautematen den segurtasuna, larrialdiak eta kontrola.

thinking Fadura proiektuaren diagnostikoa egiteko fasean kirol-parkeko espazioak dauden azterlanen eta diagnostiko zuzenaren bitartez aztertu eta “puntu beltz” edo kontuz ibiltzeko zonak zehaztu dira, gauzatzeko prozesuan herritarrekin berraztertzeko.

Jendetza biltzen duten jarduerak egiten direnez, funtsezkoa daparkea diseinatzerakoan ebakuazioa eta larrialdiko eta segurtasuneko ibilgailuen sarbidea kontuan hartzea, instalazioak eta espazio irekiak berriz diseinatzeak eragina izan dezakeelako haietan.Sarrera, orain arte, tornu- edo giltza-sistemekin kontrolatu da.Gerora begira, beste konponbide aurreratuago batzuk azter daitezke.

THINKING FADURA PROIEKTUAREN
FASEAK

thinking Fadura proiektuaren asmoa herritarrak engaiatzea da, parkearen etorkizunaz eta hiri-ingurunearekin duen erlazioaz hausnarketa kolektibo, kritiko eta konstruktiboa egin dezaten.Proiektuak hiru garapen-fase ditu:lehena, analisia eta diagnostikoa egitekofasea; bigarrena, herritarrek parte hartzeko eta kirol-parke berriaren aurreproiektua diseinatzeko prozesua martxan jartzeko fasea; eta hirugarrena, obrak egiteko eta herritarrek parte hartzeko prozesuan sortutako proiektuak sustatzeko fasea:

- **Analisia eta diagnostikoa.** Lehen fase horretan, 2017an, Fadurako alderdi garrantzitsuenak identifikatueta aztertu ziren eta agente nagusiekin hitz egin zen, proiektuaren berri emateko eta hurrengo fasean lantzeko gai garrantzitsuenei buruzko iradokizunak biltzeko.Lanak lehen aipatutako Fadurako kiroldegiaren eta haren inguruaren aurreko analisia du.

- **Diseinu partizipatiboa eta aurreproiektua.** Bigarren fasean, 2018ko urtarrila eta abendua bitartean, herritarrei Fadurako kirol-parke berriaren aurreproiektua egiteko prozesu irekian parte hartzeko deia egin zitzaien, hainbat jarduera-motaren bitartez, interesdunek beren aukera, premia eta kezken arabera parte hartu ahal zezaten ziurtatzeko.

- **Proiektuak martxan jartzea.**Hirugarren fasea 2019an hasi da, eta helburua da kirol-parke berriaren aurreproiektuan deskribatutako jarduerak gauzatzeko proiektuak eta parte hartzeko prozesuan atzemandako kudeaketarekin eta gobernantzarekin zerikusia duten gaiak martxan jartzea.

Agiri honetan jasotako herritarrek parte hartzeko prozesua 2018ko apiriletik azarora bitartean egindako bigarren faseari dagokio: “Diseinu partizipatiboa eta aurreproiektua”.

Proiektuaren faseak.

THINKING FADURA

PARTE HARTZEKO PROZESUA

PARTE HARTZEKO PROZESUA ETA AURREPROIEKTUA

Getxo Kirolakek *thinking Fadura* parte hartzeko proiektua bultzatu zuen 2018ko apirilean, Fadurako kirol-instalazioak eta haien ingurunea aldatzeko, batetik; eta libre sartzeko parke bat eta Getxo Kirolakeko bazkideek kirola egiteko instalazioak uztartzen dituen espazio publiko berri bat diseinatzeko, bestetik.

*thinking Fadura*proiektuaren asmoa **herritarrekin kirol-parkean elementu berriak jartzeko proposamenak alderatzea da; elementu horien xedeak aldizka jarduera fisikoa egitea sustatzea, ingurumena hobetzea, aisiaren, osasunaren eta kirolaren sektorean enplegua gehitzea eta espazioen sarbidea eta kontrola hobetzea** dira.

Izan ere, Getxo Kirolaken asmoa herritarrak engaiatzea da, parkearen etorkizunaz eta hiri-ingurunearekin duen erlazioaz hausnarketa kolektibo, kritiko eta konstruktiboa egin dezaten. Hori, etorkizuneko parke publikoaren funtsezko printzipioei jarraikiz eta kontuan hartuta lehen fasean egindako diagnostikoaren arabera parkeak irekia, irisgarria, osasungarria, jasangarria, inklusiboa eta berritzailea izan behar duela.

PARKE IREKIA

Fadurako kirol-parkeaz Uraren Euskal Agentziak Fadura zeharkatzen duen Gobela ibaiaren ertzean egindako obrei eskergozatu ahal izango dute herritarrek.Espazioa zabaltzeaz gain, **kirol-parke bat irekitzeak berekin dakartzaerkidegoa eratzea, parkea interesdunen partaidetzarekin diseinatzea, Getxo Kirolakeko bazkideen lekua indartzea eta gobernu irekiaren ikuspegia sartzea**.

Jarduera publikoan gobernu irekiaren ikuspegia aplikatuz gero, gobernuaren jarduera eraginkorragoa izaten da, hau da, erabaki hobeak hartzen dira eta hobeto aplikatzen dira, eta, gainera, gizartean elkarlanerako joera handitzen da, herritarrak guztien osasunen erantzunkide baitira.Hona hemen *thinking Fadura* proiektuaren webguneangai horren inguruan argitaratutako artikuluak:

1. Gobernu irekiaren ikuspegia gune publiko berriak eraikitzerakoan.
2. Parte-hartzea, Fadurako kirol parke berria denon artean pentsatzeko tresna.

PARKE IRISGARRIA

Irisgarritasun unibertsalada pertsona guztiekobjektu,leku edo zerbitzu batez gozatu ahal izatea, zer gaitasun dituzten alde batera utzita.Hiri-inguruneetan, espazioak bermatu behar du edonor sartu ahal izango delabarne- eta kanpo-instalazioetara. Zerbitzuei dagokienez, erabiltzaileek erabili ahal izatea erraztu behar da, haien gaitasunak edozein direla ere.Diseinu irisgarriak premiak bete behar ditu, dagoen ingurunean integratuta.

Parke irisgarriek ziurtatu behar dute **pertsona guztiak berdin sartzea, ibiltzea eta gozatzea, edozein gaitasun dituztela ere**.Beraz, era horretako parkeek ahal bezainbeste arintzen dituztesartzeko zailtasunak, orografiaren, hirigintzaren eta arkitekturaren berezko eragozpenak eta muga psikologikoak.Gainera, herritarrek parke irisgarriak gertukotzat dituzte eta haietara erraz heltzen dira, mugikortasuna arduratsua eta jasangarriadelako eta lotuta daudelako.Alde horretatik, teknologia digitalen eta Interneten sozializazio-ahalmena aintzat hartzea oso garrantzitsua da. Izan ere, lagun dezakete espazio publikoak irisgarriagoak izan daitezen dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, gutxitu eta deuseztatu ditzaketelako haien egoera pertsonalarekinzerikusia duten zailtasunak (hor ditugu geolokalizagailuak, sentsoreak, itzultzaileak eta irakurgailuak, besteak beste).Hona hemen *thinking Fadura* proiektuaren web-orrian gai horren inguruan argitaratutako artikulua:

1. Nolakoa litzateke Fadurako parke irisgarria?

PARKE INKLUSIBOA

Inklusioa banakoen desberdintasunei positiboki erantzuten dien ikuspegi bat da. Aniztasuna gizartea aberasteko aukera da eta, horretarako, gizarteak prozesu sozial eta kultural guztietan eta erkidegoetan parte hartzen du (Unesco, 2005).Hiriak inklusiboak eta sozialki kohesionatuak izateko giltzak hainbat jatorri kulturaletako (bertako zein atzerriko) pertsona desberdinen arteko harremana sustatzea, diskriminazioa/segregazioa prebenitzea eta konfiantza sortzea dira.

Parke inklusiboek erantzun positiboa eman behar diete **pertsonen askotariko jatorriei, dibertsitate funtzionalari, genero-aniztasunari, belaunaldiartekotasunari eta kultura-aniztasunari,** aniztasunak batu egiten duelako uste osoarekin.Hona hemen *thinking Fadura* proiektuaren webgunean gai horren inguruan argitaratutako artikuluak:

1. Zeintzuk dira Faduran parke inklusiboa diseinatzeko gakoak?
2. Fadura, berdintasunerako, dibertsitaterako eta elkarreragite positiborako gunea.
3. Fadura, aniztasunean nortasun partekatu bat eraikitzeko tokia.

PARKE OSASUNGARRIA

Gaur egun badakigu hiria berriz diseinatzeak eragin handia duela osasunean; osasuna zentzu zabalean hartzen badugu, batez ere: “erabateko ongizate fisiko, mental eta soziala, ez bakarrik gaixotasunik edo minik eza” (OMEren 1946ko Konstituzioa).

Osasuna, beraz, ez dago norberaren herentzia genetikoaren edo ohituren mende, gizarte-baldintzek ere eragin handia baitute. Osasunaren Mundu Erakundeak baldintza horiei “osasunean eragina duten gizarte-faktore” esaten die. Hona hemen *thinking Fadura* proiektuaren webgunean gai horren inguruan argitaratutako artikuluak:

1. Zeintzuk dira Faduran parke inklusiboa diseinatzeko gakoak?
2. Baina, zertarako balio du parke batek?
3. Fadura, osasunean eragina duen parkea.

PARKE JASANGARRIA

Parkea berriz diseinatzea natura-ingurune horretan egin daitezkeen jarduerak dibertsifikatzeko aukera bikaina da. Horretarako, funtsezkoa da ibaiak osatzen duen igarobide ekologikoan ekosistemaren jarraitutasunari eustea, parkeaz gozatu ahal izateko irisgarritasuna eta ekosistemaren zaintza orekatzea eta bertako fauna eta flora errespetatzea.

Parke jasangarriakdiseinatzerakoan, **eraginkortasun energetikoa sustatzeko eta neurriak eta konponbideak ezartzeko aukerak aztertzen dira, betiere ingurumenarekiko errespetuan eta naturan oinarrituta**. Hona hemen *thinking Fadura* proiektuaren webgunean gai horren inguruan argitaratutako artikulua:

1. *thinking Fadura* Europako 100 ekimen baino gehiagoren artean hautatua izan da, osasunean eta ingurumenean duen inpaktua neurtzeko.

PARKE BERRITZAILEA

Fadura kirol-parke berri bihurtzeak eskaintzen digun aukeretako bat da Getxoko Udalak kirolaren eta ongizatearen teknologiak eta industriak, kultura- eta sormen-industriak, turismo kulturala eta ongizate-turismoa sustatzearen alde egin duen apustua erabiltzaile eta ekintzaileekinlantzea, eta tokiko ekonomiarekin sinergia handiak dituen berrikuntza- eta ekintzailetza-ardatz bikain bat sortzea.Aldaketa horren ondorioz, kiroldegia bera eta parkea lan-eremu eta laborategi bihurtuko lirateke: instalazioak eta erabiltzaileak aprobetxatuko lirateke kirolarekin eta ongizatearekin zerikusia duten produktu eta zerbitzuak probatzekoeremu pilotu bat sortzeko. Hona hemen *thinking Fadura* proiektuaren webgunean gai horren inguruan argitaratutako artikuluak:

1. Funtzio publikoa berrikuntza-prozesuetan.
2. *thinking Faduran* parte hartzerako hiru ardatzak.

JARDUERA-ESPARRU ETA -EREMUA

thinking Fadura prozesuaren bitartez,lortu nahi da eragina izatea gaur egungo espazio fisikoen diseinuan (Fadurako kirol-parke berriaren aurreproiektuan jasota daude), zerbitzuetan, erabileretan, erlazioetan eta gestionatzekoeta kogestionatzeko moduetan. *thinking Fadura* prozesuaren jarduera-esparruak, helmenari eta konpromisoei dagokienez, irizpide hauek hartu behar ditu kontuan:

1. *thinking Fadura* prozesu ireki bat da eta herritar guztien eskura dago. Dokumentazio guztia eskuratzeko moduan egongo da, Getxo Kirolaken webgunean eta bulegoetan.

2. Kirol-parke berriak gaur egungo erabilerei eutsiko die eta, aldi berean, beste erabilera batzuk aztertuko ditu.

3. Eraikuntzari dagozkion gaiak legeriak, hirigintza-araudiak eta Uraren Euskal Agentziak (URA) ezarritako arauek zuzenduko dituzte.

4. Prozesuan parke irekiaren eredurako bidea errazten duten proposamenak hartuko dira aintzat, hala lanak nola proiektuak, kudeaketa-eredua partizipatiboagoa izan dadin.

5. Geroko proiektu guztiek, alegia oinarrizko proiektu eta egikaritze-proiektuek, aurrekontua izan behar dute.

6. Aldaketa-prozesua faseka gauzatuko da, instalazioak eta espazioak ahalik eta gehien erabil daitezen.

PROZESUAREN HELBURUAK

Hauek dira parte hartzeko prozesuarekin lortu nahi diren helburu nagusiak, deskribatutako jarduera-esparrua abiapuntutzat hartuta:

1. *thinking Fadura* parte hartzeko prozesuaren, prozesuko faseen eta lortutako emaitzen berri ahalik eta askotariko pertsona eta agente gehienei **ematea**.

2. Getxoko herritarrei eta Getxo Kirolakeko bazkideei prozesuan **parte har dezaten eskatzea**; horretarako, hainbat bide izango dituzte:aurrez aurreko topaketak, plataforma digitala, formularioak, gizarte-sareak eta posta elektronikoa.

3. Agenteekin, Getxoko herritarrekin eta Getxo Kirolakeko bazkideekin **batera lan egitea**, kirol-parke berriaren diseinuaren funtsezko gaiei buruzko iritziak entzuteko eta jasotzeko.

- Fadurako kirol-parke berria udalerrian eta natura-ingurunean nola integratu zehaztea.

- Azpiegitura berriaren aukerak zehaztea:landu beharreko jarduera-ildoak eta kokagunearen ahalmena.

- Zereginak eta erabilera-proposamenak zehaztea, atzemandako premia eta aukeren arabera.

- Arkitekturaren, paisaiaren eta hiriaren diseinuaren ildoak zehaztea, lehen azaldutako premia eta aukeren diagnostikoaren arabera; hori, espazioen baldintzak eta antolamendua barne hartuta eta, betiere, hirigintza-araudiak baimentzen duen heinean.

AURREPROIEKTUAREN HELBURUAK

Aurreproiektuaren helburua libre sartzeko parke bat eta kirola egiteko instalazioak uztartzen dituen espazio publiko berri bat diseinatzea da, parte hartzeko prozesuan entzun, ikasi eta partekatutako guztia kontuan hartuta.

Fadurako kirol-parkearen eta kirol-eremuen paisaia- eta hiri-antolamenduaren aurreproiektua honako hauetan dago oinarritua: batetik, herritarrek parte hartzeko prozesuan jasotako esperientzia eta ekarpen kolektibo eta bateratuak; bestetik, integrazioaren, azpiegitura berriaren aukeren, zereginen eta erabilera-proposamenen gainean atzemandako premia eta aukerak; eta azkenik, arkitektura, paisaia eta hiria diseinatzeko ildoak.

Aurreproiektuak ahalegina egiten duzona horretako erabilerakmodu funtzional eta jasangarrian berrantolatzeko, ‚Getxoko udalerriko hiri-egituraren parte gisa, hartara hiriko kirol- eta aisia-gune moduan duen zeregina indartzeko eta kirolaren eta ongizatearen teknologia eta industrien bitartez tokiko ekonomiaren garapenjasangarriabultzatzeko.

PROZESUAREN METODOLOGIA

thinking Fadura parte hartzeko prozesuhori **diseinu kolaboratiboaren metodologiaren bitartez** gauzatu da, hau da, prozesua egituratzeko helburu bat eta funtsezko ardatzak zehaztuta.Lehenik, ardatz bakoitzeko premia eta aukeren analisi kolektiboa egiten da; eta, bigarrenik, proposamenak egiten dira, elkarlanean, parte hartzen duten pertsona eta agenteek ahal adina adostuta.

Parte hartzeko prozesuak, beraz, bi ziklo ditu:

- **Ekarpenak.**Lehen zikloa, kirol-parke berriaren premia eta aukerak atzemateko.

- **Proposamenak.**Bigarren zikloa, lehen zikloko emaitzetan oinarritutako ideiak azaltzeko eta alderatzeko.

Premiak eta aukerak atzemateko zikloa hasteko, informazio-bilera bat egin zen 2018ko apirilaren 19an, Fadurako ekitaldi-aretoan.Bilera horren ondoren topaketa,

< Metodologia



> Parte hartzeko saioak

lantegi eta elkarrizketak antolatu ziren, herritarrekin eta talde espezifikoekin egiteko: Getxo Kirolakeko langileak, kiroldegiko bazkideak, kirol-klub eta -elkarteak, ezinbesteko ikuspegiak (emakumeak, ekintzaileak, adinduak, etorkinak etamugikortasun urriko eta dibertsitate funtzionaleko pertsonak), gazteak, haurrak eta alderdi politikoak.

Aldi berean, parte hartzeko prozesuan ahalik eta pertsona gehien eta askotarikoak jakinaren gainean jartzeko, partaidetza digitaleko plataforma bat antolatu zen eta paper-galdeketak banatu ziren, hala kalean nola Fadurako bazkide eta ikasleei.

Uztailean lehen zikloa amaitu eta bigarrena hasi zen, kirol-parke berrirako ideiak eta proposamenak jasotzeko.Hala, abuztuan hainbat agenterentzako (nagusiki bazkideak eta kirol-klub eta -elkarteak) aurrez aurreko saioak eta Getxo Kirolakeko langileentzako eta Getxoko haurrentzako lantegiak antolatu ziren.

Funtsean, *thinking Fadura* hainbat agenteren partaidetzaren eta kirol-parke berriaren diseinu arkitektonikoaren arteko berrelikadura-prozesua da.Hau da, parte hartzeko prozesuak tokiko premiak atzemateneta kirol-parkeko erabiltzaileek elkarlanean adostutako proiektu-estrategiak mahaigaineratzen ditu, eta estrategia horiek, gero, hiri-, paisaia- eta arkitektura-diseinuen aurreproiektuetan jasotzen dira.

Jardueren egutegia:

- **Apirilak 16. Getxo Kirolak – langileak.**
- **Apirilak 19. Informazio saioa.**
- **Maiatzak 3. Bazkideak.**
- **Maiatzak 10 eta 24. EHU/UPV unibertsitateko ikasleak.**
- **Maiatzak 17. Kirolari, klub eta elkarteak.**
- **Maiatzak 24. Udal sailak eta BC3.**
- **Ekainak 21. Behar-beharrezko beste ikuspegi espezifiko batzuk:genero-ikuspegia, kulturartekotasuna, dibertsitate funtzionala eta abar.**
- **Ekainak 28. Gazteak.**
- **Uztailak 4-6. Alderdi politikoak.**
- **Uztailak 9. Haurrak.**
- **Irailak 17 eta 18. Lehen Hezkuntzako ikasleak.**
- **Irailak 20. Elkarrekin sortzeko saio partizipatiboa.**
- **Urriak 18. Emaitzak alderatzeko saioa.**
- **Azaroak 16. Getxo Kirolak – langileak.**
- **Azaroak 29. Emaitzak itzultzeko saioa.**



Parte hartzeko lehenengo zikloa:
Getxo Kiroleko langileekin abonatuekin, klubekin, haurrekin, gazteekin eta beharrezko begiradekin parte hartzeko saioak.

Parte hartzeko bigarren zikloa: Elkarrekin sortzeko saioa, proposamen erakusketa, haurreekin parte hartzeko saioak, emaitzak alderatzeko saioa eta Getxo Kiroleko langileekin parte hartzeko saioa.

NORK PARTE HARTU DU PROZESUAN

thinking Fadura udalerriko herritar guztientzako eta Fadurako kirol-instalazioen erabiltzaileentzako prozesu ireki bat da.Parte hartzeko hainbat moduren bitartez (aurrez aurreko topaketak, plataforma digitala, galdeketak, gizarte-sareak eta posta elektronikoa), prozesuan askotariko agenteek esku hartu dute eta egin dituzte ekarpenak:

- Getxoko biztanleak.
- Getxo Kirolakeko bazkideak:erabiltzaileak, ikasleak eta abar.
- Getxo Kirolakeko bazkide izan ez arren instalazioak erabiltzen dituzten pertsonak.
- Kirol-klub edota -elkarteak.
- Bertako gazteak.
- Instalazioetako langileak.



> Parte - hartzaileen mapa

- Osasun, kirol eta ongizateko aditu eta teknikariak.
- Ordezkari politikoak.
- Instalazioak erabiltzen dituzten herriko haurrak.
- Beste batzuk.

Gauzak horrela, hainbat bideren bitartez, aurrez aurre eta modu digitalean, **1.699 lagunek parte hartu dute** prozesuan:764k aurrez aurre, 618k plataforma digitalaren bitartez eta 317k paper-galdeketen bidez.

PARTAIDETZA GENEROAREN ARABERA

Generoari dagokionez, partaideen % 51 gizonak, % 43 emakumeak eta % 2 beste genero batekoak dira; gainerako % 5aren daturik ezin izan dugu lortu.

Datu orokorretan eta partaidetza digitalean bi sexuen portzentajeak antzekoak diren arren, aurrez aurreko saio batzuetan askoz emakume gutxiagok parte hartu du;kirol-elkarte eta -klubekin egindako bileretan, adibidez.Ikasleekin eta unibertsitateko gazteekin egindako saioetan, berriz, kontrakoa gertatu da: gizon baino emakume gehiagok parte hartu du.





PARTAIDETZA ADINAREN ARABERA

Partaidetza orokorrak Gauss-en kanpaiaren itxura du: partaide gehienak 31 eta 45 urte eta 46 eta 65 urte bitartekoak dira (% 25 eta % 24, hurrenez hurren), eta 12 eta 17 urte bitartekoen eta 65 urtetik gorakoen taldeetan partaide gutxiago daude (% 7 eta % 10, hurrenez hurren).Beraz, partaide gehienak (% 49) 30 eta 65 urte artekoak dira.

Alde horretatik, aurrez aurreko saio berezien bitartez adin-tarte guztietako jendea engaiatzeko ahaleginak emaitza oso ona izan du, haurrek, gazteek eta adinduek parte hartu baitute prozesuan.



PARTAIDETZA PARTAIDEEK FADURAREKIN DUTEN HARREMANAREN ARABERA

Partaideek Fadurarekin duten harremanari dagokionez, % 79 Getxo Kirolakeko bazkide eta Getxoko biztanle dira.Horietaz gain, % 8 kirol-elkarte edo -kluben batekoak dira eta % 5 instalazioen erabiltzaileak, bazkide izan ez arren.

Gainera, % 3 kirol-instalazioetako langileak dira, eta beste % 3 adituak edo teknikariak; azkenik, % 1 kirol-sektoreko ekintzaile edo profesionalak dira eta beste % 1 ordezkari politikoak.

PROZESUAN PARTE HARTZEKO BIDEAK

Askotariko ahalik eta pertsona gehienek parte har zezaten, *thinking Fadura* prozesuak hainbat bitarteko erabili ditu, hala aurrez aurrekoak (bilera bereziak, topaketa irekiak, paper-formularioak) nola kanal digitalak (plataforma digitala, gizarte-sareak eta posta elektronikoa):

- **Aurrez aurreko partaidetza.**Talde espezifikoekin lau bilera eta hainbat jenderekin 18 topaketa ireki egin ziren (txosten honetako “Prozesuan nork parte hartu du” atalean zehaztuta daude) eta 208 paper-galdeketa bildu ziren.

- **Partaidetza digitala.** Prozesuaren lehen zikloan, formulario baten bitartez premiak eta aukerak jasotzeko plataforma digital bat sortu zen; eta bigarren zikloan plataforma hori proposamenak eztabaidatzeko foro gisa erabili zen.Aldi berean, gizarte-sareetan eta thinkingfadura@getxo.eushelbidearen bitartez parte har zitekeen.

THINKING FADURA PROIEKTUAREN BERRI EMATEA

thinking Fadura Getxoko Kirol Parke Berria proiektuaren Komunikazio Planak helburu hauek ditu: prozesuaren berri ematea eta gardentasuna ziurtatzea, hainbat bideren bitartez parte hartzea sustatzea, Fadurako kirol-parke berriari buruzko eztabaida bultzatzea eta askotariko ikuspegien kontaketa partekatua sortzea.

Kanalak konbinatzea izan da profil desberdinak dituzten eta informatzeko eta jarduteko modu desberdinak erabiltzen dituzten pertsonengana heltzeko giltza. Komunikazioa kudeatzeko egitura digitalak erabiltzeaz gain (webgunea, gizarte-sareak, posta elektronikoa, bat-bateko mezuak eta Fadurako panel digitalak), esparru analogikoan ere antolatu dira komunikazio-ekintzak:argitalpenak Getxoberri astekarian, hedabideentzako prentsa-oharrak, udalerrian jartzeko eta banatzeko kartel eta liburuxkak, informazio-mahaiak hiriko hainbat gunetan eta erakusketak Fadurako atondoan, besteak beste.

KOMUNIKAZIO DIGITALA

Zabalkuntza digitalaren estrategiaren oinarria komunikazio zentralizatuko eta komunikazio banatuko premisak konbinatzea da.Hala, batetik, proiekturako sortutako webguneak edukiak bildu eta antolatu dira,proposatutako erronkaren inguruan eztabaida errazteko baliabideak ezagutzera emateko, ikusgai jartzeko, gizarteratzeko eta eskura jartzeko eta, halaber, kontaketa partekatuaren aztarna uzteko.Eta, bestetik, edukiak Getxo Kirolaken berezko gizarte-kanalen bitartez banatu zaizkie hartzaileei, #thinkingFadura traola erabiliz: Facebook, Twitter eta Instagram.

Orain, prozesuan erabilitako komunikazio digitaleko euskarri bakoitzean zer egin den azalduko dugu:

WEB-ORRIA

Proiekturako sortutako webgunea: www.thinkingfadura.eus.Parte hartzeko prozesua publikoa da eta proiektuaren webguneak egoera zein den eta zer eduki dituen ematen du jakitera unean-unean.

Web-orriak, batetik, prozesuaren faseei eta fase horietan parte hartzeko moduari buruzko informazio zehatza bildu eta azaltzen du; eta, bestetik, prozesuaren kontaketa dinamiko bat sortzen du, adituen, Getxoko Udaleko teknikarien eta parte hartzen duten herritarren iritzia argitaratuz.

Webguneko blogean37 post argitaratu dira,parke ireki, irisgarri, inklusibo, berritzaile, osasungarri eta jasangarriakgaitzat harturik, hainbat ikuspegitatik (elkarrizketak, kronikak, ekintzen azalpenak, emaitzak eta artikuluak).

Aztertutako aldian, *thinking Fadura* proiektuaren webguneak 7.582 bisita izan ditu.Bisita horietan 18.177 orri ikusi dituzte eta batez beste 2 minutu eta 27 segundoan egon dira konektatuta.

Webgunea 25 eta 34 urte bitartekoekbisitatzen dute gehien (% 33,50), eta gero 18 eta 24 urte bitartekoek (% 27,50).Generoari dagokionez, sartzen diren gizonen portzentajea emakumeena baino ia hamar puntu handiagoa da, eta gauza bera gertatzen da partaideen profilaren analisian.

SARE SOZIALAK

Sare sozialetan Getxo Kirolaken kanalen bitartez eman da proiektuaren berri, #thinkingFadura traola erabiliz: Facebook, Twitter eta Instagram.Traol horri esker, batetik, prozesuaren edukia eta kanal horietan argitaratutako beste eduki batzuk bereizi dira eta, era horretan, erabiltzaileek informazioa errazago eskuratu dute; eta bestetik, prozesuaz hitz egiten duten pertsonekin harremanetan jartzea erraztu da, haiekin elkarrizketan aritzeko eta iruzkin eta iradokizunei erantzuteko, entzute- eta monitorizazio-sistema iraunkor baten bitartez.

thinking Fadura proiektuaren sare sozialetako informazio- eta elkarrizketa-agendako edukiak lau ardatz nagusi hauetan daude banatuta:(I) elkarrizketak eta iritzi- eta ekarpen-eskariak testuen, bideoen eta posta elektronikoaren bitartez edo zuzenean, gizarte-sareetan; (II) prozesuaren egoera, faseen berri emateko eta aurrez aurreko saioetan zer gertatu den jakinarazteko; (III) Getxoko udalerriko hartzaileei eta Getxo Kirolakeko bazkideei prozesuan parte hartzeko dei egitea; (IV) webgunean argitaratutako artikuluak zabaltzea.

Edukiak argitaratzeak ekimen eta pertsona gehiago erakartzen ditu eta, ondorioz, erkidegoko agenteekin harremana errazten eta aberasten da.Hona hemen #thinkingFadura traolarekin Facebook, Twitter eta Instagrameko kontuetan eguneratzeak argitaratuz lortutako emaitzak:

- **Facebookeko argitalpenak.**Prozesuak iraun duen bitartean, proiektuari buruzko 260 eguneratze argitaratu dira sare sozial horretan.Argitalpen horiek 205.456 erabiltzaile bakarrek ikusi dituzte.

  Gainera, 8.254 erabiltzaile bakarrek #thinkingFadura traolarekin egindako argitalpenetan beren iritzia eman edo hitz egin dute:atsegin dutela adierazi, partekatu edo iruzkinen bat egin edo bestelako klik bat egin dute.

- **Twitterreko argitalpenak.**Aztertutako aldian, 210 erabiltzaile bakarrek 1.424 txio egin dituzte #thinkingFadura traolarekin.

  Txio horiek guztiak (1.424) 2.144.265 erabiltzailerengana heldu dira, hau da, erabiltzaile-kopuru horrek ikusi ahal izan du traol hori duen mezuren bat.

- **Instagrameko argitalpenak.**Kanal horren bitartez proiektuari buruzko 88 eguneratze argitaratu dira eta eguneratze horiek 36.412 erabiltzailerengana heldu dira; hau da, erabiltzaile-kopuru horrek ikusi ahal izan du #thinkingFadura traoladuen mezuren bat.Argitalpenekin 2.176 elkarrekintza izan dituzte.

- **Bideoak ikustea.**Aldi horretan, 40 bideo baino gehiago argitaratu dira sare sozialetan eta bideo horiek 23.557 aldiz ikusi dira.

POSTA ELEKTRONIKOA ETA TELEFONOA

Posta elektronikoaren eta telefonoaren bidez ere (WhatsApp barne) izan dira harremanak parte hartu duten pertsona eta agenteekin, eta komunikazio-mota horren erabilera arduratsua izan da.

Posta elektronikoz prozesuari buruzko informazioarekin, deialdiekin, gonbidapenekin eta abarrekin zerikusia duten 73.563 mezu bidali dira eta Fadurako parke berriaren diseinuari buruzko kontsultak eta ideiak jaso dira.

KOMUNIKAZIO ANALOGIKOA

Komunikazio digitala komunikazio analogikoko ekintzekin indartu da, informazioa ahalik eta jende gehienari helarazteko.Hona hemen ekintza horietako batzuk:

- Bost prentsa-ohar argitaratzea.
- Getxoberrin lau orrialdeko bi argitalpen berezi egitea.
- Udalerriko gune estrategikoetan 390 kartel informatibo banatzea.
- Getxoko metro-geltokien irteeran 2.000 informazio-liburuxka banatzea.
- Getxo Kirolakeko bazkide eta ikasleei formularioak banatzea.
- Udalerriko hainbat lekutan informazio-mahaiak jartzea, bost egunetan.
- Fadurako atondoan bi erakusketa egitea.

PARTE HARTZEKO PROZESUAREN
EMAITZAK

Premien eta aukeren berri jasotzeko partaidetza-prozesua hiru multzotan antolatu da:parke publikoa, kirol-instalazioak eta erabilera berriak.

- **Parke publikoa** herritar guztiek erabiltzeko eta gozatzeko irekita geratuko den eremua da.Eremu horretan espazio irekiak, atsedenlekuak, ibaiko pasealekua, aparkalekuak eta ostalaritzako zona daude.

- Fadurako **kirol-instalazioekbazkide** eta erabiltzaileentzako zerbitzu espezifikoa eskaintzen jarraituko dute eta sarrera mugatua izango da.Hauek dira instalazioak:igerilekuak, tenis-pistak, padel-pista, futbol-zelaiak, atletismo-pista, belodromoa, saskibaloi-kantxa, belar artifizialeko kirol anitzetarako zelaia, frontoiak, erabilera askoko aretoak, kirol anitzetarako aretoak, gimnasioak, fitness-aretoa, osasun- eta estetika-zerbitzua, aisia-eremua eta liburutegia.

- Fadurako kirol-parke berriak espazio publikoaren **erabilera berriak s**ustatu nahi ditu arlo hauetan: aisia eta kirola, ingurumenaren zaintza, enplegu-sorkuntza eta gure osasuna hobetzeko konponbide berritzaileak.

Multzo horiek oinarritzat hartuta, prozesuan jasotako **1.879 ekarpenak** gaien arabera sailkatu dira.Ekarpen horiek laburtu eta **45 proposamen** atera dira, Fadurako **hamar espaziotarako,**esku-hartze motaren arabera sailkatuta:fisikoak, kudeaketakoak eta gobernantzakoak.Aipatutako hamar espazioak hauek dira (ikusi erantsitako mapa):eraikin nagusia; kanpoko igerilekuak; tenis-pistak; atletismoa, errugbia, hockeya eta erabilera anitzekoa; ibai-parkea; perimetroa, sarrerak eta aparkalekua; frontoien eraikina; garagardotegia, herri kirolak eta sarrera; futbol-zelaia eta Bolueko futbol-zelaiak.

Aurreproiektuen zirriborroetan jasotako hasierako 45 proposamenak alderatzeko eta diseinatzeko bigarren zikloak hiru hilabete iraun du eta guztira 218 jarduera-proposamen atera dira (1. eranskinean jasota daude).Proposamen horiek motaren, kategoriaren eta diagnostiko-ardatzaren arabera sailka daitezke.

- **Proposamen-motak.**Hiru proposamen-mota daude:azpiegituran eta instalazioen alderdi fisikoetan eragina dutenak, kudeaketan eragina dutenak eta kirol-parke berriaren gobernantzan eragina dutenak.

- **Parkearen kategoriak.**Gainera, proposatutako jarduerek parkearen kategoria hauetan zer eragin izango duten zehaztu da:irekia, irisgarria, inklusiboa, osasungarria, berritzailea eta jasangarria.

- **Diagnostikoaren ardatzak.**Halaber, proposamenak diagnostikoan atzemandako ardatzekin lotu dira:hiri-, espazio-, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-ingurunea, instalazioen jarduera eta erabilera bera, sarbidea eta mugikortasuna, eta parkearen segurtasun integrala.

< Parte hartzeko prozesuaren lehen zikloko emaitzen laburpena

Proposamen-motei dagokienez, 110 esku-hartze fisikoak dira, 65 parkearen eta parkeko instalazioen kudeaketari buruzkoak eta 43 gobernantzaren ingurukoak.

Proposamenak dagozkien **parke-kategoriaren arabera** ere aztertu dira. Alde horretatik, proposamenen % 37k parkea osasungarria izan dadin sustatzen dute, % 21ek inklusiboa izatea, % 15ek jasangarritasuna, % 13k irisgarritasuna, % 7k berritzailea izatea eta % 6k irekia izatea.

Proposamenak **diagnostikoaren ardatzetan** izan dezaketen eraginaren arabera ere multzokatu dira.Hala, ikus dezakegu instalazioetako jarduera eta erabileretan dutela eragina, nagusiki, eta gero espazioan, ingurumenean, mugikortasunean, segurtasunean, gizarte-aniztasunean eta irisgarritasunean, eta hiri-, gizarte- eta ekonomia-inguruenean.

Aipatutako 218 jarduera-proposamenak agiri honetako I. eranskinean daude zehaztuta.

Jarduera-proposamen horietako asko kirol-parke berriaren aurreproiektuan daude jasota eta beste batzuk gorde egin dira, Getxo Kirolakek aurreragoko egikaritze-proiektuetan edo kudeaketako edo gobernantzako esku-hartzeetan berriz aztertzeko eta martxan jartzeko.

Proposamenen kategoriak (%) - Categorías de las propuestas (%)

< Proposamen kategoria



Proposamen tipologia (%) - Tipología de propuestas (%)

> Proposamen tipologia



Proposamenak (aurreko analisiaren arabera)(%) - Propuestas (según análisis previo) (%)

< Proposamenak digonstiko - ardatzen arabera



ARAUDIA

Aurreproiektu honetan, Faduran aplikatu beharreko hirigintzako araudiak ezarritako baldintzatzaileak landu behar dira lehendabizi.Arau horiek hainbat erakundek jartzen dituzte, eta erakunde horien eskumenak desberdin eragiten die lursailari eta lursaileko eraikuntza-elementuei.

Orain Fadurari zer araudik eragiten dion eta diseinu arkitektonikoan zer gai kontuan hartu behardiren azalduko dugu labur-labur.

JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOA

Erakunde eskumenduna: Uraren Euskal Agentzia (URA).

Araudia: 849/1986 Errege Dekretua - Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua, Uren inguruko 29/1985 Legearen I, IV, V, VI eta VII aurre tituluak gara¬tzen dituena.

Garagardotegiak Gobela ibaiaren polizia-zonaren eragin par¬tziala du, eta lursailaren erliebea eta eraikun¬tzak bezalako alderdiak baldin¬tza¬tzen ditu. Lehendik dagoen eraikuntza handiago-tzeko, URAren onarpena beharko li¬tzateke.

Honelakoetan URAri obra-eskaria egin behar zaio:

- Garrantzi gutxiko obrak (dauden eraikin edo eraikuntzak; itxitura eta hesi argiak instalatzea; lorategiko hiri-altzariak eta antzekoak;bakantze-, eskokatze- eta inauste-lan txikiak eta antzekoak).

- Obra lineal garrantzitsuak (bidegorriak, hodiak, komunikazio-azpiegiturak, linea elektrikoak eta abar).

- Urak har ditzakeen zonetako eraikuntzak.

ERREPIDEAK

Kiroldegian nagusiki BI-637 autobidea (oinarrizko sarearen zatia) eragiten du. Mota honetako errepideak zenbait muga ekartzen ditu Fadura¬ko eremuan gara daitezkeen erabileretan eta jardueretan. Horien artean, arautegiak hauek kontuan hartzen ditu:

Jabari publikoko eremua (30. art.), honela definitutakoa: “errepideek okupatutako lurrak eta haien elementu funtzionalak, eta errepideko lur-zerrenda bat. Lur-zerrenda horrek zortzi metroko zabalera izango du autobide, autobia [...]; gainerako errepideetan, berriz, hiru me-troko zabalera. Zerrenda horiek bidearen alde bietan egongo dira, Eta horizontalean eta bidearen ardatzarekiko perpendikularrean daude neurtuta, laugunearen kanpoko ertzetik”.

Zortasun-eremua (31. art.): “ezin izango da lanik egin, eta bide-segurtasunarekin bateragarri diren erabilerak bakarrik egin daitezke. Horre¬tarako, edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena behar da, bes¬te edozein erakundek gaian eduki ditzakeen eskumenak gorabehera”. Laugunearen kanpoko ertzekiko bi lerro paraleloz mugatuta dago, 25 m-ko distantziara autobideetan, eta 8 m-koa gainerako errepideetan.

Eraginpeko eremua (32. art.): “eraginpeko eremuan edozein lan mota eta instalazio fin¬koak zein behin-behinekoak egiteko, erabilera aldatzeko eta zuhaitzak landatu edo mozteko, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena behar da, beste edozein erakundek gaian eduki ditzakeen eskumenak gorabehera”. Laugunearen kanpoko ertzekiko bi lerro paraleloz mugatuta dago, 100 m-ko distantziara auto¬bideetan, eta 30 m-koa gainerako errepideetan.

Eraikuntza-lerroa (34. art.): galtzadaren kanpo¬ko ertzetik 50 m-ra dago autobietan, eta 12 m-ra sare lokalean. Lerro horretatik errepideraino debekatuta dago edozein eraikuntza-lan egitea, sestraren gainean zein sestrapean.

IHOBE

Erakunde eskuduna: Ihobe. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako sozietate publikoa.Ingurumen-arlo hauetan lan egiten du: klima-aldaketa, ekodiseinua eta eraikingintza iraunkorra.

Fadurako lursaila beteleku baten gainean dago, garagardo-lantegitik eta futbol-zelaitik gertu dagoen zonan izan ezik, zona horretako lurzorua alubiala baita.Agirien balorazioan (2017ko maiatzak 28, Erref SC-23/10-NP), Ihobek, Getxo Kirolak egitera doan Fadurako parkearen aurreproiektu berriari eta lurra mugitzea edo erabilerak aldatzea eta abar eragiten duten obrei dagokienez, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedura hastea eskatu zuen.

Ingurumen-organoak 2016ko azaroaren 11n egindako balorazio-idazkiaren eskakizunak aintzat hartu behar dira, Fadurako lursaileko zona batzuetan kutsagarriak izan daitezkeen eta mugatu gabe dauden jarduera edo instalazioak daudelako:

- Fadurako eta errugbiko pista ondoko zonari dagokionez, ezinbestekoa da ingurumen-organoari erakunde onetsi batek egindako indusketa-planaaurkeztea eta ingurumen-organo horrek plana onartzea. Erabilera murriztaileagoak ezarri nahi izanez gero, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedura hasi behar da, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1d puntuan ezarritakoaren arabera.

- Adierazpen-zonatik kanpo dauden obrei dagokienez, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedura hasi behar da egoera lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1e puntuan zehaztutakoa bada (arriskua eragin ahal izateko adinako kontzentrazioetan lurzoruan substantzia kutsatzaileak daudelako zantzu oinarrituak).Alde horretatik, zonaren aurrekariak ikusita, obra horien esparruan ikertutako zonatik kanpo lurra mugituz gero, lan horiek erakunde onetsi batek ikuskatu behar ditu eta, kutsadura-arrastorik aurkituz gero, ingurumen-organoa berehala jakinaren gainean jartzeko mekanismoak ezarri behar ditu.

- Edozelan ere, kontuan hartu behar da, egiteko dauden ikerketen emaitzen ondorioz, adierazpena egiteko azalera edo ingurumen-organoak Fadurako parkearen proiektu berria egiteko ezinbestekotzat jotzen dituen eskakizunak nabarmen alda daitezkeela.

ERAIKITZEKO BALDINTZAK

Erakunde eskumenduna: Getxoko Udala.

Araudia: Getxoko HAPO.

Nabarmendu beharreko puntuak:

1. Garagardotegiaren sailkapena ondorengoa da: Hiri Lurzorua eta Ekipamendu Publikoa.

2. Garagardotegia Fadurako parkeari dagokion partzelan kokatzen da, eta partzelak 204.767 m2 ditu.

3. Fadurako instalazioetan ezartzen da “13. Ordenantza Jolaseta eremurako”:

    1. Gu¬txieneko orubea 800 m2
    2. Gehieneko okupazioa .....%30
    3. Eraikuntzaren altuera gehienez.... ....3 p
    4. Mugakide eta bideekiko tartea..... ....4 m
    5. Eraikuntzen arteko tartea .....8 m
    6. Sabai koefizientea sestra gainean 0,25 m2/m2
    7. Eremuaren aprobetxamendu-mota 0,25 m2/m2

Ondorioak

Metro karratu eraikigarriei dagokienez:

Sestra gaineko sabai-koefizientea 0,25 m2/m2 da.Gehieneko azalera eraikigarria lursaileko metro karratuko 0,25 m2 eraikikoa da. Beraz, 52.059 m2 eraiki daitezke.

Agiri hau argitaratutako egunean, **35.213 m2** eraiki inguru daude Fadurako parkeko lursail osoan.Beraz, **16.846 m2** gehiago eraiki daitezke.

Hauek dira zona bakoitzean eraikitzea proposatutako azalerak:

- Fadurako garagardo-lantegiko zentro sozial berria: 780 m2.
- Teniseko eta padeleko eraikin berria: 8.956 m2.
- Atletismoko eta errugbiko eraikin berria: 1.964 m2.
- Atletismoko eta errugbiko harmailak handitzea: 1.350 m2.
- Frontoiak.Forja berria eta sartzeko galeria: 2.360 m2.
- Bolueko futbol-zelaiak: 824 m2.
- Futbol-estadio estalia: 3.260 m2.

Guztira, beraz, **19.494 m2** dira.

Gauzak horrela, eraikuntza-premia Getxoko ordenantzek baimentzen dutena baino handiagoa denez, Plan Orokorrean aldaketa egin beharko da, berraztertzen ari direla aprobetxatuz. Alde horretatik, nahikoa da sestra gaineko sabai-koefizientea 0,25 m2/m2-tik 0,3 m2/m2-ra igotzea.Bestela, Plan Orokorrean aldaketa zehatzak egin beharko dira.

Oinplano-okupazioari dagokionez:

Gehieneko oinplano-okupazioa % 30ekoa da.Gehieneko azalera 62.471 m2 izango litzateke.Agiri hau idatzi denean, oinplano-okupazioa 19.308 m2 da eta, beraz, **43.163 m2** gehiago har daitezke.

Hauek dira geroko oinplano-okupazioak:

- Fadurako garagardo-lantegiko zentro sozial berria:1.083 m2.
- Teniseko eta padeleko eraikin berria: 8.406 m2.
- Atletismoko eta errugbiko eraikin berria: 1.964 m2.
- Atletismoko eta errugbiko harmailak handitzea:695 m2.
- Frontoiak.Sartzeko galeria berria:190 m2.
- Bolueko futbol-zelaiak:824 m2.
- Futbol-estadio estalia: 3.260 m2.

Guztira, beraz, **16.423 m2** dira.

Altuerei dagokienez:

Hirigintzako arauen 7.4.7 artikuluan ezarritako gehieneko altueren parametroek muga hauek ezartzen dituzte Jolasetako eremurako (13. Ordenantza):

- Hiru solairuren gehieneko altuera:9,35 m.
- Teilatu-hegalaren kotaren gainean amaitutako goihabearen gehieneko altuera: 2,5 m.

Proposatutako eraikin guztiek betetzen dituzte eskakizunak, padeleko eraikinak izan ezik. Eraikin horrek 12 metroko altuera behar du eta, beraz, Getxoko HAPOn aldaketa egin beharra dago.

Gainerakoei dagokienez:

Aurreproiektuko proposamenak gainerako eraikuntza-baldintzak betetzen ditu.

PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAK

Atal honetan azalduko ditugu, batetik, **zeharkako konponbideak**, hau da, kirol-parke berri osoari dagozkienak; eta bestetik, **espazioen araberako konponbideak,** hau da, kirol-parke berriko espazio bakoitzari dagozkienak.

ZEHARKAKO KONPONBIDEAK

Parte hartzeko prozesuaren ondoren proposatzen diren jarduerek proiektu osoari eragiten dioten eta proiektuaren izaera, irisgarritasuna eta erabileren arteko erlazioa zehazten dituzten diseinu-bereizgarri batzuk dituzte.Bereizgarri horiek gai hauekin dute zerikusia:

- Mugak eta sarbideak.
- Segurtasuna eta babesa.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna.
- Kudeaketa eta gobernantza.

MUGAK ETA SARBIDEAK

EGUNGO EGOERA

Gaur egun, Faduraren mugak maila hauetan daude banatuta:kirol-parkea ixten duen inguruko hesia, kirola egiteko segurtasun-hesia eta eremu teknikoetara sartzea eragozten duen hesia.

Gainera, Fadurak sarbide mistoko sistema bat du, sarbide kontrolatuak tornuekin eta sarbide libreekin konbinatzen dituen sistema bat, alegia.

- Tornuekin kontrolatutako sarbideak. Kiroldegiak bi sarrera nagusi ditu:bata eraikin nagusian eta bestea frontoien eraikinean.
- Normalean itxita egoten diren sarbideak.Eremu batzuetan normalean itxita egoten diren eta kirol-klubek kudeatzen dituzten sarbide hesituak daude.
- Sarbide irekiak.Gaur egun (2018ko azaroa) saskibaloi- eta padel-pistetara eta iparraldeko eremu osora libre sar daiteke.
- Zerbitzu-sarbideak.Normalean itxita egoten dira eta teknikariek bakarrik erabiltzen dituzte.

< Fadurako gaur egungo mugen adibideak

> Proposatutako egurrezko hesiaren infografia

AURREPROIEKTUAREN PROPOSAMENA

Mugei dagokienez, aurreproiektuko proposamen orokorra hau da:

- Egungo inguruko hesia kentzea, parkea irekia, inclusiboa, irisgarria eta segurua izan dadin.

- Kirol-instalazioen mugak zehaztea, segurtasuna ziurtatzeko.Muga horiek dagozkien eraikinek eta kirola egiteko segurtasun-hesiek (baloiak eta pilotak ez ateratzekoek) osatzen dituzte; aire zabaleko instalazioek ez dute mugarik.Proposamena egurrezko hesi atseginagoak jartzea da, ikusgaitasuna eta parkearen irekitasun-sentsazioa areagotzeko.

Sarbideak kontrolatu egin behar dira, parkeak erabilera publiko eta kirol-erabilera kontrolatu eta ordenatuak izango baititu. Aurreproiektuaren arabera, kirol-instalazio guztiek hainbat zonatatik heltzeko sarbide kontrolatuak izango dituzte.Sarbide kontrolatuek tornuak eta interfonia-instalazioak izango dituzte, behar izanez gero Getxo Kirolakeko langileekin hitz egiteko.

> Kirol-instalazioen muga eta sarbideen proposamena



< Parkearen muga eta sarbideen proposamena



Sarrera kontrolatuko zona horiez gain, parke publikora Getxoko udalerriko hainbat lekutatik sartzeko sarbideak egongo dira, parkera erraz sartzeko eta bideak ez eteteko:

- Erdiko sarbidea (aparkalekua).
- Garagardo-lantegi zaharreko sarbidea (Makaleta etorbidea).
- V-etako sarbidea (Makaleta etorbidea).
- Institutuko sarbidea (tenis).
- Ekialdeko sarbidea (atletismoa).
- Ekialdeko sarbidea, Salsidualde estratatik (erabilera anitzekoa).
- Hegoaldeko sarbidea, Bolueko hezegunetik.
- Hegoaldeko sarbidea, Makaleta etorbidetik.

> Segurtasun proposamena



SEGURTASUNA ETA BABESA

EGUNGO EGOERA

Gaur egun, Fadurako Udal Kirol Hiria kirol-instalazio itxien modura diseinatuta dago. Dena den, Uraren Euskal Agentziak (URA) ibaian egindako obrak direla eta, instalazioak irekita geratu dira, eta, ondorioz, segurtasun-sistema berriz antolatu behar da.Alde horretatik, parte hartzeko prozesuarekin batera, parkearen Segurtasun eta Konektibitate Plan Integrala egiteari ekin zaio, aurreproiektuari diseinuan segurtasuna aintzat hartzeko oinarriak gehitzeko.

AURREPROIEKTUAREN PROPOSAMENA (SEGURTASUN ETA KONEKTIBITATE PLAN INTEGRALA)

Parke berriaren segurtasun integralak honako hauek errazten dituzten konponbideak konbinatu behar ditu: segurtasun-sisteman jarduten duten pertsonen lana, ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen diseinatu beharreko prozedurak eta gaur egun prestazio berriak eskaintzen dituen eta aprobetxatu beharra dagoen teknologia.

Segurtasun-proposamena hiru zirkulutan oinarrituta dago.Lehenak pertsona- eta ibilgailu-fluxuak hartuko dituen perimetro-segurtasunarekin du zerikusia, eta bideozaintza, geolokalizazioa, megafonia eta ibilgailuak kontrolatzeko neurriak izango ditu, besteak beste.

Bigarren segurtasun-zirkuluak kirol-instalazio eta -azpiegiturak hartuko ditu, eta suteak detektatzeko eta jendea ateratzeko neurriak, sarbideen kontrola, edukieren kontrola, interfonia eta abar izango ditu.

Azkenik, hirugarren segurtasun-zirkuluari azpiegitura kritikoak dagozkio, kaxa elektrikoak eta instalazio informazioak, adibidez.

MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

EGUNGO EGOERA

Diagnostikoa egiteko fasean erabiltzaileak kiroldegira nola heltzen diren zehaztu da.Halaber, parkea mugikortasun jasangarriaeta instalazio guztietarako irisgarritasun unibertsala errazteko moduan diseinatu beharra planteatu da.

Egungo mugikortasun-azpiegiturari dagokionez, bizikletaz heltzen diren erabiltzaileek aparkalekuak dituzte eraikin nagusiaren eta frontoien eraikinaren kanpoaldean,baina leku horiek seguruak ez direla irizten diote.

Automobilez heltzen direnek uste dute ez dagoela aparkatzeko toki nahikoa, eta automobila leku hauetan uzten dute:

- Salsidualde estratako ilarako aparkalekua.
- Iparraldeko bizitegi-eremuko aparkalekuak.

Azkenik, instalazioen egungo irisgarritasuna aztertu da, araudia betetzen ez duten instalazio eta aldageletako sarbide guztiak aldatu ahal izateko.

> Mugikortasunaren diagnostikoa:ohiko garraiobideak



> Eraikin nagusiko bizikletentzako aparkalekua

AURREPROIEKTUAREN PROPOSAMENA

Mugikortasun jasangarriaeta irisgarritasun unibertsala sustatzeko, parke berrian jarduera hauek egitea proposatu da:

- Instalazio guztietan denentzako irisgarritasun egokia ziurtatzeko behar adina baliabide eta neurri jartzea.
- Parke berrian bizikletentzako eta patineteentzako aparkaleku seguruak jartzea, kirol-instalazioen sarbide kontrolatuetatik gertu banatuta.
- Sarbide jasangarriaerrazteko anezken kudeaketa lantzea, batez ere Getxotik, baina baita Faduratik urrunago dauden beste leku batzuetatik ere; Berango, Areeta eta Leioatik, adibidez.
- Eraikinaren pareko aparkalekuak kentzea eta haien ordez jendea heltzeko eta jasotzeko aldi baterako aparkalekuak jartzea.
- Fadura inguruko eremuetako aparkalekuak erabiltzea sustatzea;Aiboa eta Larrañazubikoak, esaterako.
- Paradigma aldatzea:automobilak jartzea oinezkoentzako espazioan, ez oinezkoak automobilentzako espazioan.
- Horrez gain, aurreproiektuak erdiko aparkalekuan zoladura iragazgaitza eta Hiriko Drainatze Sistema Iraunkorrak (HDSI) jartzea proposatzen du.

< Infografia

KUDEAKETA ETA GOBERNANTZA

EGUNGO EGOERA

Getxo Kirolak Getxoko Udalarenorganismo bat da, eta hark kudeatzen dituudal-kiroldegiak (Fadura, Gobela eta Andra Mari) eta kirol ez-profesionaleko, eskola-kiroleko eta kirol federatuko jarduerak. Fadurako parkeko jarduera Getxo Kirolakek kudeatuko du, hein handi batean.

AURREPROIEKTUAREN PROPOSAMENA

Herritarrek parte hartzeko prozesuan lehentasunezko kudeaketa-premia batzuk atzeman dira. Hauek dira premia orokorrak:

- Sareak, hesiak, argiteria, aldagelak eta, orokorrean, kirol-instalazioak mantentzea.
- Kirol-materiala berritzea.
- Zerbitzuak erreserbatzeko eta eskuratzeko gestioa hobetzea.
- Getxo Kirolaken eta erabiltzaileen arteko komunikazioa hobetzea.
- Gizarte-ingurune erantzunkidea sortzea, herritarreiosasunarekin zerikusia duten politika publikoen sorreran eta egikaritzeanleku gehiago egiteko.

Alde horretatik, prozesuaren inguruko lau lan- eta lankidetza-esparru nagusi zehaztu dira:

1. Nola sortu kluben artean elkarlan- eta autonomia-kultura?
2. Nola engaiatu bazkide eta erabiltzaileak haiei eragiten dieten eguneroko kudeaketako gaietan (garbiketa, mantentze-lana, zerbitzuak…)?
3. Nola lortu Fadura espazio irisgarri unibertsala izatea?
4. Nola kudeatu aldaketa, alegia obrak eta espazioen erabilera, trantsizioak irauten duen bitartean?

KONPONBIDEAK ESPAZIOEN ARABERA

Fadurako kirol-parke berria diseinatzeko konponbideak hamar espazio funtzional bereizitan sailkatu dira.Hamar espazio horietatik bederatzi espezifikoki landu dira, eta ondoren azalduko ditugu.Perimetroen, mugen eta sarbideen atala, aldiz, zeharkako konponbide gisa landu da, espazio guztiei eragiten dielako.Hona hemen espezifikoki landutako espazioen zerrenda:

1. Ibai-parkea.
2. Eraikin nagusia.
3. Kanpoko igerilekuak.
4. Garagardotegia, herri kirolak eta sarbide berria.
5. Frontoien eraikina.
6. Tenis eta padel-pistak.
7. Atletismoa, errugbia, hockeya eta erabilera anitzekoa.
8. Futbol-estadioa.
9. Bolueko futbol-zelaiak.

Espazio horietaz gain,hor dago garagardo-lantegikoa, Fadurako zentro sozial berria. Zentro horretako partaidetza-prozesua 2017an gauzatu zen eta jarduera-ildoak berezko aurreproiektu batean deskribatu dira.Agirietan, dokumentazio grafikoa eta lantegien emaitzak ez ezik, aurreproiektuaren definizioa ere jasota dago:diseinu-irizpideak, proposamenaren aurkezpena eta proiektuaren plano teknikoak.

- Ikusi garagardo-lantegiko memoria — Euskera | Gaztelania
- Ikusi garagardo-lantegiko planoak — Euskera | Gaztelania

IBAI-PARKEA

Ibai-parkeak Fadurako egungo kirol-instalazioak inguratzen dituzten berdeguneak eta ibaiaren ibilgu eta ertzak hartzen ditu.

- Lursailaren azalera: 208.235 m2
- Parke publikoaren azalera: 81.811 m2 (% 39)
- Kirol-instalazioen azalera: 126.424 m2 (% 61)

- Errugbia eta atletismoa: 39.287 m2
- Tenisa eta padela: 13.392 m2
- Hockeya eta frontoiak: 13.747 m2
- Bolue Futbol zelaiak: 17.300 m2
- Eraikin nagusia eta igerilekuak: 26.279 m2
- Futbol-estadioa: 11.941 m2
- Garagardo-lantegiaren eraikina:464 m2
- Goi-errendimenduko eraikina: 4.011 m2

ERABILERAK

Ibai-parkearen proposamenaren asmoa aisia-, atseden- eta kirol-jarduerak biltzea da:oinezkoentzako eta korrikalarientzako ibilbide eta pasealekuak;esertzeko, elkartzeko, irakurtzeko eta atseden hartzeko egonlekuak; haurrentzako jolastokiak parkean banatuta; eta kirola libre egiteko zonak (yoga, tai ji, borroka-arteak, luzaketak, ume-jolasak, 'calistenia' eta abar).

PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

Ibai-parkearen xedea libre sartzeko parke publiko bat sortzea da, hiri eremuari eta Bolueko hezeguneari elkartua, herritarrek kirolari loturiko natura-ingurune batez gozatu ahal izan dezaten.

Jarduera hauek daude aurreikusita:

- Ibaiaren bi ertzetan oinezkoentzako eta korrikalarientzako pasealekua eraikitzea, erabilera bakoitzerako berariazko zoladurarekin.
- Ibaiaren ibilgurako sarbideak egitea.
- Parke barruan oinezkoentzako bideak jartzea, jendearen fluxua arintzeko eta kirol-instalazioetara erraz sartzeko, eta baita jolasleku eta egonlekuak ere.
- Hiri-altzari eta iturri berriak jartzea.
- Landaretza berria jartzea (proposamen hori URArekin adostu eta zehaztu beharko da hurrengo faseetan).
- Parkeko hainbat eremutan aire zabalean kirola egiteko zonak prestatzea eta mugatzea.
- Parkeko hainbat zonatan haurrentzako jolasleku txikiak jartzea, kirolarekin zerikusia dutenak, paisaian integratuta.
- Bi komun publiko jartzea.
- Argi-instalazio berria egitea, fauna errespetatzeko ingurumen-irizpideekin.
- Parke publikoaren sarbideetan seinale berriak instalatzea.
- Ibaiko ura aprobetxatzeko instalazioak jartzea, parkea eta kirol-instalazioak ureztatzeko.

< Fadurako egungo berdeguneen ikuspegia eta natura-ingurunea.

Korrikarako bidea
recorrido para runing

Oinezkoen bidea
Camino peatonal

Berdegune publikoa (parkea)
Zona verde pública (parke)

Instalazioen berdegunea
Zona verde del área instalaciones

AG Aisialdirako Gunea (yoga, taichi...)
Área de Esparcimiento (juegos...)

AI Aktibitatea Ibaian
Actividad en el Río

Komunak
Aseos públicos

> Natura-inguruneare-rekin bat datorren seinaleen diseinuaren adibidea.



> Ibaiko ura ureztatzeko aprobetxatzeko instalazioaren eskema.

MUGAK, SEGURTASUNA, MUGIKORTSUNA ETA IRISGARRITASUNA

Aurreproiektuko proposamena parke ireki bat sortzearen aldekoa da, hau da, inguruko mugak kentzeko asmoa du,ikusgaitasuna eta parke publikoaren irekitasun-sentsazioa areagotzeko.

Parkera sartu ahal izango diraoinezkoakmugakide dituen zona guztietatik, proiektatutako sarrerei esker.Bizikletaz edo irristailuz heldu ahal izatea sustatuko da parke osoan bizikletentzako aparkaleku seguruak banatzeko proposamenarekin, eta baita parkera Makaleta etorbidetik eta Salsidualde estratatik heltzen den eta Fadura erditik zeharkatzen duen bidegorri-sarearekin ere.



ERAIKIN NAGUSIA

Eraikin nagusian, hauek daude: bi igerileku estali, 600 lagunentzako kirol anitzeko pista estali harmailadun bat, fitness- eta muskulazio-aretoa, osasun-zerbitzua, erabilera anitzeko bi areto, ekitaldi- eta erakusketa-areto bat, ikasgelak, gune soziala, haurren jolastokia, aldagelak, jatetxea eta kafetegia.

ERABILERAK

Eraikin nagusiak egungo kirol- eta gizarte-erabilera berberak izatea aurreikusi da, baina erosotasuna eta irisgarritasuna nabarmen hobetuko dira.

PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

Jarduera hauek proposatu dira:

- Estalkia egokitzea.Ur-zirrituak konpontzea eta estalkia energia berriztagarria instalatzeko aprobetxatzea.

- Mantentze-lanetako langileentzakoespazioak:
  – Mantentze-lanetako langileek lan administratiboak egiteko bulego-zona bat jartzea mediku-kontsultategian.
  – Mantentze-lantegia leku egokiago batean jartzea.

- Igerilekuetako aldagelak eta sarbideak hobetzea:
  – Zoladurak hobetzea, seguru ibiltzeko moduko irristakortasuna ziurtatzeko.
  – Aldagelak egokitzea, akustika eta altzariak hobetuz (eserleku zabalagoak eta abar).
  – Dutxak berritzea.

- Ikasteko gunea egokitzea: espazioa berriz diseinatzea, erabileraren araberako zonak bereizita; akustika hobetzea; altzari berriak (altzari egokituak barne), inprimagailua eta fotokopiagailua jartzea; eta argi- eta girotze-instalazio eta ordenagailu eramangarriak erabiltzeko korronte-hargune berriak instalatzea.

- Irisgarritasuna hobetzea:
  – Tornu egokitu bat jartzea.
  – Sarrerako atea aldatzea, automatikoa izan dadin.
  – Sarrera nagusitik gertu igogailu berri bat instalatzea.
  – Bi aldagela egokitu jartzea (bata emakumeentzat eta bestea gizonentzat), eraikin osoari zerbitzu emateko.
  – Ikasteko aretoko mailen ordez arrapala bat jartzea.

- Itxarote-espazioak hobetzea:
  – Kanpoan itxarote-gune berri bat jartzea, hiri-altzariekin.
  – Barruan, sarrerako atondoan, itxarote-gune berri bat jartzea, altzariekin.
  – Lehen solairuko itxarote-gunea egokitzea:espazio moldakor bat diseinatzea, premien arabera mugi daitezkeen altzari arinekin; esertzeko eta igerilekua ikusteko espazio bat jartzea; haurrek jolas egiteko espazioa aldatzea eta zarata asko sortzen ez duten haurrentzako jardueretarako moldatzea.

> Eraikin nagusiko lehen solairuaren planoa



ERAIKIN NAGUSIA LEHEN SOLAIRUA
EDIFICIO PRINCIPAL PRIMERA PLANTA

ESPAZIO BERRIAK / NUEVOS ESPACIOS

1. IRISGARRITASUN PROPOSAMENAK PROPUESTAS ACCESIBILIDAD	19.63 m2
2. ITXARON-GUNEA / ZONA DE ESPERA	91.20 m2
3. IKASKETA GUNEA / ZONAS ESTUDIO	685.58 m2

MUGAK, SEGURTASUNA, MUGIKORTSUNA ETA IRISGARRITASUNA

Espazio publikoaren eta kirol-instalazioen arteko mugak eraikinak berak jartzen ditu.

Instalazioetarako sarrera orain arte bezala kontrolatuko da, Makaleta etorbideko sarrera nagusitik.

Mugikortasun jasangarriasustatzeko, udalerriko hainbat lekutatik oinez heldu ahal izatea eta bizikletak, patineteak eta abar seguru aparkatu ahal izatea ziurtatuko da.

KANPOKO IGERILEKUAK

Kanpoko igerilekuen eremuan,badira estali gabeko igerilekuak, estalki mugikorreko igerilekua, kanpoko igerilekuetan erabiltzeko berdegunea eta haurren jolastoki bat,eraikin nagusiaren atzealdean.

ERABILERAK

Zona horrek erabilera hauek barne hartzen ditu:

- Kanpoko igerilekuak.
- Haurren jolastoki berria (179,7 m2).
- Berdegune handitu berria (1.250 m2).

PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

Hauek dira kanpoko igerilekuen eremurako proposatutako jarduerak:

- Kanpoko igerilekuetan txirristak eta jolas egiteko elementuak jartzea.
- Berdegunea handitzea, igerilekuaren inguruko gainazal gogorrari lekua hartuz.
- Zuhaitz gehiago landatzea, itzalgune handiagoasortzeko.
- Kafetegirako pasabidean mahai eta eserlekuekin espazio bat sortzea.
- Aire zabaleko haurren jolastokia berriz antolatzea.
- Ibaiko ura garbitzeko eta ureztatzeko berreskuratzeko sistema bat instalatzea.

MUGAK, SEGURTASUNA, MUGIKORTSUNA ETA IRISGARRITASUNA

Gaur egun, espazio publikoaren eta kanpoko igerilekuen zonaren arteko muga hesi batek eta heskai batzuek osatzen dute. Aurreproiektuko proposamenak eutsi egiten dio ibaiko pasealekuko muga horri.

Kanpoko igerilekuetarako sarbide kontrolatua eraikin nagusiaren sarreran egongo da eta bakarra izaten jarraituko du.

< Kanpoko igerilekuen planoa

< Kanpoko igerilekuen infografia

GARAGARDOTEGIA, HERRI-KIROLAK ETA SARBIDE BERRIA

Eremu horrek gaur egungo padel-pista, saskibaloiko eta areto-futboleko kantxak eta garagardo-lantegi zaharretik ibairaino doan berdegune osoa hartzen ditu.

ERABILERAK

Kirol-eremu ireki berri bat sortzea proposatu da (3.950 m2) , honako hauez osatua:

- Erabilera anitzeko pista (800 m2)
- Ping Pong maiak (240 m2)
- Petanka (60 m2)
- Komun publikoak eta biltegiak (60 m2)
- Kalistenia eta parkour guneak (610 m2)
- Skate-eremua (325 m2)
- Aire zabalean kirola egiteko gunea (yoga, taichi,etab) (360 m2)

Hau da parke berriaren sarrera garrantsitzuenetariko bat. Hemen egongo da ere umeak jolasteko gune bat.

> Eremuaren planoa



^ Infografia

PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

Hauek dira zona horretarako proposatutako jarduerak:

- Egungo kirol-pisten ordez proposatutako erabilera berriak jartzea.
- Instalazio berriak jartzea:komunak eta biltegiak.
- Argi-instalazio berri bat egitea, eraginkorra, adimentsua (erreserbei lotua) eta itsutzen ez duena.
- Garagardo-lantegiko sarbidea irekitzea eta egokitzea.
- Parke publikoaren zonan hiri-altzari eta -ekipamenduak eguneratzea eta instalatzea (eserlekuak, paperontziak, haur-jolasak eta abar).
- Herri kiroletarako instalazioa futbol-zelaiko harmailen azpira eramatea.

MUGAK, SEGURTASUNA, MUGIKORTSUNA ETA IRISGARRITASUNA

Zona hori irekia da, erabilera publikokoa, eta, beraz, espazio publikoaren eta kirol-instalazioen artean ez dago mugarik.

Infografia:garagardo-lantegi zaharreko sarreratik dagoen ikuspegia

FRONTOIEN ERAIKINA ETA HOCKEY

Frontoien eraikina parkearen erdialdean dago, eta barruko hainbat kirol egin daitezke bertan.

ERABILERAK

Frontoien eraikinean kirol-diziplina ugari egin daitezke, eta, berriz diseinatzerakoan, espazioa aprobetxatzea eta erabilera anitzetarako erabili ahal izatea lehenetsi da.Proposatutako erabilerak honela daude antolatuta:

- Beheko solairua. Sarbide berria (190 m2) Erabilera anitzeko pista (800 m2), frontoi motza, frontoi luzea, skate (230 m2), erabilera anitzeko bi areto - eskrima, gimnasioa eta abar- (2 x 230 m2), haurren jolastoki familiarra (310 m2), egungo gimnasioa (359 m2), gaur egungo trinketa (235 m2), aldagelak, komunak eta mantentze-lanetarako espazioa (73,5 m2).

- Solairuartea.Egungo erabilerei eutsiko zaie.

- Lehen solairua.Erabilera anitzeko pista (800 m2), erabilera anitzeko eta boxeorako gimnasioa (135 m2), aldagelak (220 m2), komunak (35 m2) eta gai osasungarrien salmenta automatikoko makina.

- Bigarren solairua.Erabilera anitzeko eta yogarako aretoa (135 m2), bulegoak (170 m2), ekintzailetzarako espazioa (135 m2), biltegiak (60 m2), komunak eta gai osasungarrien salmenta automatikoko zona (37 m2).



< Frontoien eraikineko beheko solairua

PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

Frontoien eraikinean jarduera hauek egitea proposatu da:

- Eraikinaren egitura birgaitzea eta, horretarako, eraikinaren zimendu eta hormak sendotzea.

- Estalkian kalteak konpontzea, euri-uren sarea eguneratzea eta eguzki-energia aprobetxatzeko sistemak instalatzea.

- Espazioen barrualdea programa berriaren arabera berrantolatzea eta, horretarako, forja eta trenkada-multzo berriak eraikitzea.

- Eraikinean argi- eta aireztapen-instalazio berriak jartzea.

- Aldagelak eta komunak egokitzea.

- Kanpoko hockey-pistan harmaila berriak jartzea.

- Frontoien eraikinetik hockey-pistarako sarbidea egitea.

> Frontoien eraikineko bigarren solairua



> Frontoien eraikineko lehen solairua



MUGAK, SEGURTASUNA, MUGIKORTSUNA ETA IRISGARRITASUNA

Espazio publikoaren eta kirol-instalazioen arteko mugak eraikinak berak jartzen ditu.

Instalazioetarako sarrera behe solairuko komunikazio-gune berrian kontrolatuko da.Handik eraikineko beste solairuetara eta kanpoko hockey-pistara joan daiteke. Frontoien eraikinera parkearen erditik bakarrik sartzen da, aparkalekutik.

Mugikortasun jasangarriaziurtatzeko, jendea parkearen erditik oinez heldu ahal izango daeta bizikletak eta irristailuak seguru aparkatu ahal izango dira.

TENIS ETA PADEL-PISTAK

Espazio horrek barne hartzen ditu egungo tenis-pista estaliak eta estali gabeak, ping-pong mahaiak eta haien inguruko berdegunea.

ERABILERAK

Kirol-eremu estali berri bat sortzea proposatu da, honako hauetaz osatua:

- Tenis-pistak: (7+1), entrenamenduko tenis pistak (3) Padel-pistak (10+2).
- Zerbitzu-zona bat beheko solairuan, zeinak aldagelak,garbiketa eta mantentze gela, komunak, komun publiko bat eta gune sozial bat izango baititu (501 m2).
- Zerbitzu-zona bat lehen solairuan, bulego, aldagela eta komunekin(550 m2).
- Bizikletentzako eta irristailuentzako aparkaleku segurua.

Pisten estalki honekin benetazko erabilgarritasuna lortzen da jendearentzako erabilgarri dauden %100aren denboran, horrela oraingo erabilera bikoiztuz, denboraren %50a baino gutxiagokoa dena.

Erabilera publikoari dagokionez, zona horretan aire zabalean kirola egiteko espazio bat moldatzea aurreikusi da (714 m2).

PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

Hauek dira zona horretarako proposatutako jarduerak:

- Zona estaliko eta estali gabeko zonako pistak berrantolatzea, lehen aipatutako tenis- eta padel-pistak espazio bakar batean biltzeko.

- Pista guztiak estaltzea, ahal izanez gero egurrezko egiturarekin eta estalki arinarekin.

< Tenis- eta padel-instalazio berrien planoa

- Alboko itxitura jartzea, kirol-espazioaren iparraldea eta ekialdea euritik eta haizetik babesteko.

- Zerbitzu berriak jartzea: aldagelak, komunak, biltegiak eta zona soziala, besteak beste.

- Argi-instalazio berri bat egitea, itsutzen ez duena eta eraginkorra eta adimentsua, erreserbei lotu ahal izateko.

MUGAK, SEGURTASUNA, MUGIKORTSUNA ETA IRISGARRITASUNA

Espazio publikoaren eta kirol-instalazioen arteko mugak erabat estaliko den kirol-espazioko alboko itxiturarekin sortuko dira.

Kirol-instalazioen sarrera kontrolatuak bi zona izango ditu, bata ibai-parketik eta bestea Fadura ekialdetik sartzeko.

Beste behin, mugikortasun jasangarriaziurtatzeko, jendea hainbat lekutatik oinez heldu ahal izango daeta bizikletak eta irristailuak seguru aparkatu ahal izango dira.

ATLETISMOA, BELODROMOA, ERRUGBIAETA ERABILERA ANITZEKOA

Zona horrek barne hartzen ditu egungo atletismo-pista, belodromoa, golf-zelaia, erabilera anitzeko zelaia eta inguruko berdegunea.

ERABILERAK

Hauek dira espazio horretarako aurreikusitako instalazioak:

- Atletismo-pista, errugbi--zelaia eta belodromoa, egungo erabilerei eutsita.
- Hainbat kirol-diziplinatan trebatzeko eraikin estalita berria (1.964 m2). Bertan entrenatzeko gunea (1.606 m2), biltegiak (224 m2) eta aldagelak (52 m2) egongo dira. Aldagelak eta biltegiak (260 m2), gimnasioa (265 m2), epaileen eta kazetarien aretoa (helmugako argazkia han integratuko da) (260 m2) gune soziala (158 m2) eta terraza (172m2), harmailen eraikin handituan (1.350 m2).
- Bizikletentzako eta irristailuentzako aparkaleku segurua.

Erabilera publikoari dagokionez, zona horretan sarbide publikoko erabilera anitzeko pista bat, aire zabalean kirola eta jarduera fisikoa egiteko zona bat eta haurren jolastoki bat jarriko dira.

PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

Hauek dira zona horretarako proposatutako jarduerak:

- Dauden kirol-instalazioei parke publikotik bereizteko mugak jartzea, gauzen eta pertsonen segurtasuna ziurtatzeko.

- Egungo harmaila-eraikina handitzea, sarbideen kontrola eta proposatutako erabilera berriak jartzeko. Kontutan hartu behar da ere grabazio dorre baten beharra.



< Estalpean entrenatzeko eraikin berriaren oinplanoa

- Helmugako argazkiaren etxola berritzea eta harmaila-eraikin handituko goiko solairuan jartzea.

- Hainbat kirol-diziplina estalpean egin ahal izateko eraikin berri bat eraikitzea, zerbitzu emateko instalazio osagarriekin (aldagelak eta biltegiak).

- Argi-instalazio berri bat egitea, eraginkorra, adimentsua eta itsutzen ez duena.

- Zonako hiri-altzariak berritzea.

- Parke publikoari dagokion zonan landaretza jartzea.Behin betiko proposamena URA agentziak baliozkotu beharko du.

- Zona horretan ibaiko ura ureztatzeko aprobetxatzeko instalazio bat jartzea. Salsidualde estratako iparraldeko sarbidea anbulantziak sartzeko prestatzea (belodromoaren eta erabilera anitzeko pistaren artean).

> Harmaila-eraikin handituaren planoak



HARMAILAK HANDITZEKO SOLAIRUA PLANTA AMPLIACIÓN GRADAS	
BEHE SOLAIRUA PLANTA BAJA	
1. AZALERA ERABILGARRIAL ALDAGELA / BILTEGIAK SUPERFICIE ÚTIL VESTUARIOS/ALMACENES	260m2
2. AZALERA ERABILGARRIAL GIMNASIOA SUPERFICIE ÚTIL GIMNASIO	265m2
3. AZALERA ERABILGARRIAL SARRERAK SUPERFICIE ÚTIL ACCESOS	170,05m2
LEHEN SOLAIRUA PLANTA PRIMERA	
4. AZALERA ERABILGARRIAL KOMUNAK SUPERFICIE ÚTIL ASEOS	36m2
5. AZALERA ERABILGARRIAL EPAILE EGONGELA / KAZETARIAK SUPERFICIE ÚTIL SALAS JUECES/PERIODISTAS	260m2
6. AZALERA ERABILGARRIAL ESPAZIO SOZIALA SUPERFICIE ÚTIL ESPACIO SOCIAL	158m2
7. AZALERA ERABILGARRIAL TERRAZA SUPERFICIE ÚTIL TERRAZA	171,6m2
SUP. CONSTRUIDA TOTAL ERAIKITAKO AZALERA GUZTIRA	1.350m2

MUGAK, SEGURTASUNA, MUGIKORTSUNA ETA IRISGARRITASUNA

Eremuaren inguruko muga guztiak kenduko dira, erabilera anitzeko pistakoak izan ezik.

Kirol-instalazioen eta parke publikoaren arteko mugan egurrezko hesia jarriko da, ikusgaitasuna eta parkearen irekitasun-sentsazioa areagotzeko, segurtasunarikalterikegin gabe.

Kirol-instalazioetarako sarrera bi zonatan kontrolatuko da:batetik, ibai-parketik sartzeko sarbidean; eta bestetik, Fadura ekialdean atletismo-pistaren ondoan dagoen sarbidean.

Mugikortasun iraunkorra ziurtatzeko, jendea hainbat lekutatik oinez heldu ahal izango daeta bizikletak eta irristailuak seguru aparkatu ahal izango dira ekialdeko zonako sarbidearen ondoan.

FUTBOL-ESTADIOA

Futbol-estadioaren eremua udal futbol-zelaiak eta hura ibairaino eta garagardo-lantegi zaharraren sarreran hasten den bideraino inguratzen duen berdeguneak osatzen dute.

ERABILERAK

Aurreikusitako erabileren arabera, udal futbol-estadio berria izango da eta 7.300 ikuslerentzako lekua izango du.Gainera, harmaila azpiko iparraldeko gunea herri-kirolak egiteko prestatuko da.

> Udal futbol - estadioaren proposame-naren infografia

> Udal futbol-estadioaren planoa

PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

Hauek dira zona horretarako proposatutako jarduerak:

- Pisten estalki honekin benetazko erabilgarritasuna lortzen da jendearentzako erabilgarri dauden %100aren denboran, horrela oraingo erabilera bikoiztuz, denboraren %50a baino gutxiagokoa dena. Harmailen antolamendu berriarekin,egungo terraza aurreratu daiteke, palkotik zelaia hobeto ikusteko.

- Harmaila azpiko espazioa herri kirolak egiteko eta bi biltegi (477 m2 eta 2014 m2), komunak (484 m2) eta aldagelak (484 m2) jartzeko aprobetxatzea.Euri-ura zelaia ureztatzeko aprobetxatu ahal izateko instalazioak jartzea.

MUGAK, SEGURTASUNA, MUGIKORTSUNA ETA IRISGARRITASUNA

Eremuaren inguruko muga guztiak kenduko dira.Udal-estadioak Fadurako erdiko aparkalekuarekin, ibai-parkearekin, parkearekin eta garagardo-lantegi zaharraren zonarekin egiten du muga.

Kirol-instalazioen eta parke publikoaren arteko mugak estadioak berak jartzen ditu.Estadioko sarrera bi zonatan kontrolatuko da:batetik, garagardo-lantegi zaharretik sartzeko tokian; eta bestetik parkearen erditik, aparkalekuaren ondotik, sartzekotokian.

Getxo

Municipal de Getxo
C
Sarrera
Puerta
Gate

BOLUEKO FUTBOL-ZELAIAK

Bolueko futbol-zelaien eremuan belar artifizialeko hiru futbol-zelai daude, Bolueko hezegunetik gertu, eta baita gizonentzako eta emakumeentzako aldagelak ere.

ERABILERAK

Egungo erabilera bera aurreikusi da:hiru futbol-zelai eta dagozkien aldagelak.

> Bolueko futbol - zelaien planoa

PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

Hauek dira zona horretarako proposatutako jarduerak:

- Eremu estali gehiago jartzea, Bolue 2n partidak ikusteko.
- Bolue 1en harmaila berriak eraikitzea.
- Bolue 1eko harmailen azpian gizonentzako aldagela berriak jartzea (320 m2).
- Bolue 3n aldagelak handitzea eta egokitzea (68,75 m2).
- Bolue 3n aldagela berriak (165,85 m2) eta gimnasioa (137,8 m2) jartzea.
- Euri-ura zelaiak ureztatzeko aprobetxatu ahal izateko instalazioak jartzea.

MUGAK, SEGURTASUNA, MUGIKORTSUNA ETA IRISGARRITASUNA

Oraingoan, kirol-jarduerak berak segurtasun-hesi bat behar du, zelaiak mugatzeko eta parke publikotik bereizteko. Salsidualde estratan itxitura egurrezko hesiekin egingo da, kalearen itxurarekin bat egiteko.

Sarrera hiru zonatan kontrolatuko da: Makaleta etorbidetik Bolue 3ra eta Salsidualde estratatik eta ibaiko pasealekutik Bolue 1 eta 2ra.

Bizikletak eta antzekoak uzteko aparkaleku itxi eta zaindua egongo da.

PLANOAK

Egindako plano guztiak 2. eranskinean daude:

A.01 Solairu orokorrak – Egungo egoera
A.02 Proposamena, parkeak eta mugak
A.03 Parke proposamena: erabilera eta komunikazioak
A.04 Proposatutako atalak
A.05 Parke proposamena: lorezaintza
A.06 Kirol-instalazioak proposamena
A.07 Kirol-instalazioak sarrerak
A.08 Fluxuak proposamena
A.09 Kirol-instalazioak afekzioak
A.10 Kutsatutako lurzoruak
A.11 Segurtasun proposamena – Sarrerak
A.12 Iparraldeko zona proposamena
A.13 Erdiko zona proposamena
A.14 Hegoaldeko zona proposamena

Futbol zelaia
FU.01 Futbol/errugbiko udal estadioa
FU.02 Udal estadioa - Lursaila

Harmailen eraikinaren handitzea (atletismo eta rugbi)
GR.01 Harmailen eraikinaren handitzea

Atletismo/errugbiko eraikina
AR.01 Atletismo/errugbiko eraikina

Eraikin Nagusia
EPP.01 Er. Nagusia behe sol. - Egungo egoera
EPP.02 Er. Nagusia 1.solairua - Egungo egoera
EPP.03 Er. Nagusia behe sol. – Berritut. egoera
EPP.04 Er. Nagusia 1.sol. – Berritut. Egoera

Padel/Teniseko eraikina
TP.01 Padel/Teniseko eraikina

Pilotalekuen eraikina
FR.01 Pilotalekuen er. behe sol. – Egungo egoera
FR.02 Pilotalekuen er. tarte sol. – Egungo egoera
FR.03 Pilotalekuen er. lehen sol. – Egungo egoera
FR.04 Pilotalekuen er. 2.sol. – Egungo egoera
FR.05 Pilotalekuen er. behe sol. – Berritut. egoera
FR.06 Pilotalekuen er. tarte sol. – Egoera berritua
FR.07 Pilotalekuen er. lehen sol. – Egoera berritua
FR.08 Pilotalekuen er. 2.sol. – Egoera berritua
FR.09 Pilotalekuen er. – Egungo/berria ebaketak
FR.10 Pilotalekuen er. – Egungo/berria ebaketak

AURREKONTUAREN ZENBATESPENA

Aurreproiektuaren fasean gai batzuk zehaztu gabe daudenez, atal honetako zenbatekoak gutxi gorabeherakoak dira. Aurrekontuak agiri honetan proposatutako esku-hartzeak gauzatzeko obra-proiektuak idazten direnean zehaztuko dira.

IBAI-PARKEA

Aurrekontuaren zenbatespen honetan esku-hartze hauek balioztatu ditugu: ibaien bi ertzetako bideak eta espazio publiko osoa urbanizatzea; eraikin nagusiaren sarbide berria eta parkearen erdialdeko bi aparkalekuak urbanizatzea; hesietan esku hartzea, egungo inguruko mugak kentzeko eta berriak jartzeko; egungo padel-zona estali gabean kanpoko pistak egokitzea; ibaiko pasealekuan eta egonlekuetan altzariak eta kanpoko argiak berritzea.

Horrez gain, aurrekontuak parkeko landaretza berritzeko eta lursaila egokitzeko partida hartu behar ditu aintzat.

Parkeko esku-hartzeak	Prezioa/m2	Prezioa
Bideak urbanizatzea (egurra)	80	296.000,00 €
Bideak urbanizatzea (zabor-legarra)	50	100.000,00 €
Eraikin nagusiaren sarbidea urbanizatzea	120	102.000,00 €
Egurrezko hesia (+ eraistea)	40	132.000,00 €
Kanpoko pistak egokitzea	100	400.000,00 €
Altzariak + argia	25	142.500,00 €
Landaretza	10	20.000,00 €
Lurzorua egokitzea (aparkalekuak barne)	10	818.109,50 €
		2.010.609,50 €

ERAIKIN NAGUSIA

Eraikin nagusian, aintzat hartu dituguirisgarritasunarekin loturiko jarduerak (igogailu berria instalatzea, arkitektura-oztopoak kentzea, aldagela egokitu berriak jartzea, sarrerako atean aldaketak egitea eta tornu irisgarria jartzea) eta mantentze-lanetako langileentzako espazioak lekualdatu eta hobetzearekin zerikusia dutenak.

Horrez gain, hainbat espazio egokitzeko inbertsioak egitea ere aurreikusi da; espazio horiek dira;zehazki, ikasteko aretoa eta itxarote-guneak.

Halaber, estalkia egokitzeko eta bertan instalazio fotovoltaiko bat jartzeko inbertsioak egitea aurreikusi da.

Eraikin nagusiko esku-hartzeak	Prezioa/m2	Prezioa
Irisgarritasun-proposamena		149.231,31 €
Mantentze-lanetako gunea egokitzea	500	61.250,00 €
Ikasgela eta itxarote-guneak egokitzea	350	269.500,00 €
Estalkia egokitzea	50	260.000,00 €
Estalkian instalazio fotovoltaikoa jartzea		665.600,00 €
		1.405.581,31 €

KANPOKO IGERILEKUAK

Kanpoko igerilekuei dagokienez, aurrekontuak honako hauek barne hartzen ditu: igerilekua inguratzen duen zoladuran esku hartzea, txirristak eta haur-jolasak jartzea, haurren jolastokia berriz antolatzea eta mahai eta eserlekudun zonak prestatzea.

Gainera, igerilekuko ura garbitzeko edo ureztatzeko berreskuratu ahal izateko sistema bat instalatzea aurreikusi da.

GARAGARDOTEGIA, HERRI-KIROLAK ETA SARBIDE BERRIA

Gune hau parke publikoa da, beraz, IBAI-PARKEA atalean sartu dira toki honetarako egindako proposamenen aurrekontuak.

Kanpoko igerilekuen eremuko esku-hartzeak	Prezioa/m2	Prezioa
Berdegune berria (eraistea barne)	50	62.500,00 €
Txirristak, haurren jolastokia eta askaldegiak	125	22.500,00 €
Ura ureztatzeko aprobetxatzea		160.000,00 €
		245.000,00 €

FRONTOIEN ERAIKINA

Frontoien eraikinean egitura sendotzeko jarduera eta fatxadan egitura sendotzeko elementu berriak integratzeko jarduera posiblea hartu ditugu aintzat.Estalkiaren gaineko lanen aurrekontua ere sartu dugu:estalkia egokitzea, instalazio fotovoltaiko berri bat jartzea eta jendea sartzeko eta ateratzeko konponbide berrirako behar den inbertsioa egitea.

Barrualdean, baliozkotu ditugun jarduerek honako hauekin dute zerikusia: forja berria jartzea, barruko bereizketa berriak egitea eta kirol-instalazio guztiak, aldagelak eta beste espazio batzuk egokitzea.

Aurreproiektu honetan hockey-pista frontoien eraikinari lotzea proposatu denez, harmaila berriak egiteko jarduera atal honetan sartu da.

Frontoien eraikina eta hockey	Prezioa/m2	Prezioa
Egitura sendotzea	140	814.940,00 €
Forja berriaren egitura	150	240.000,00 €
Estalkia (dagoena egokitzea)	50	291.050,00 €
Estalkian instalazio fotovoltaikoa jartzea		755.200,00 €
Fatxadak (egokitzea)	50	200.000,00 €
Instalazioak (egokitzea)	350	1.400.000,00 €
Sartzeko galeria berria	1000	760.000,00 €
Hockey-pistako harmaila berriak	250	16.250,00 €
		4.477.440,00 €

TENIS ETA PADEL-PISTAK

Espazio honek tenis- eta padel-pistak hartzen ditu.Aurrekontuan, tenis-pista estalien egungo eraikina eraistea eta eraikin estali berri bat eraikitzea dago aurreikusia; eraikin berriak kirol-instalazio berriak eta dagozkien zerbitzuak (aldagelak, komunak, bulegoak eta abar) izango ditu.

Teniseko eta padeleko eraikina	Prezioa/m2	Prezioa
Zimendatzea	100	840.594,00 €
Egitura	100	840.594,00 €
Estalkia (+ dagoena eraistea)	175	1.215.594,00 €
Fatxadak	150	750.000,00 €
Instalazioak	350	2.942.079,00 €
		6.588.861,00 €

ATLETISMOA, ERRUGBIA, HOCKEYA ETA ERABILERA ANITZEKOA

Zona horretako esku-hartzeak harmailen eraikina handitzea eta estalpean entrenatzeko eraikin berria eraikitzea dira.

Atletismoko eta errugbiko eraikina	Prezioa/m2	Prezioa
Zimendatzea	125	245.517,50 €
Egitura	125	245.517,50 €
Estalkiko xafla	100	196.414,00 €
Fatxadak	200	392.828,00 €
Instalazioak	350	687.449,00 €
		1.767.726,00 €

Atletismoko eta errugbiko eraikineko harmailak	Prezioa/m2	Prezioa
Zimendatzea	150	105.000,00 €
Egitura	125	168.750,00 €
Estalkia (+ dagoena eraistea)	250	215.000,00 €
Fatxadak	300	300.000,00 €
Instalazioak (+ dagoena egokitzea)	450	607.500,00 €
		1.396.250,00 €

FUTBOL-ESTADIOA

Udal futbol-estadioan harmaila berriak eraikiko dira,harmaila azpian aldagela berriak eta herri kirolak egiteko gunea jarriko dira eta zelaia egokituko da.

Futbol-estadioko esku-hartzeak	Prezioa/m2	Prezioa
Harmailak + beheko aldagelak		
Zimendatzea eta harmailak	350	1.013.600,00 €
Fatxadak eta estalkia	400	1.158.400,00 €
Aldagelak eta sarbideak	250	724.000,00 €
Zelaia egokitzea	20	149.800,00 €
		3.045.800,00 €

BOLUEKO FUTBOL-ZELAIAK

Aurrekontuaren zenbatespenean jarduera hauek hartu ditugu aintzat:

- Bolumen berriak eraikitzea eta barruko instalazioak egitea:Bolue 1eko harmailak, azpian aldagelak dituztela; Bolue 3ko aldagela berriak eta gimnasioa; eta Bolue 2n partidak ikusteko estalpeko zona.

- Bolue 3ko egungo aldagelak handitzea.

Bolueko esku-hartzeak	Prezioa/m2	Prezioa
Zimendatzea	150	123.660,00 €
Egitura	150	123.660,00 €
Estalkia	350	173.660,00 €
Fatxadak	250	206.100,00 €
Instalazioak (+ egokitzea)	300	247.320,00 €
		874.400,00 €

HURRENGO PAUSOAK

Herritarrek parte hartzeko eta kirol-parke berriaren aurreproiektua diseinatzeko prozesua martxan jartzeko fasea amaitu ondoren, 2019an hirugarren fasea hasi da. Fase horren helburua kirol-parke berriaren aurreproiektuan deskribatutako jarduerak gauzatzeko proiektuak eta parte hartzeko prozesuan atzemandako kudeaketarekin eta gobernantzarekin zerikusia duten gaiak martxan jartzea da.2019an honako lan hauek egin behar dira:

- Jarduerak lehenestea.
- Jarduera-esparru berria diseinatzea, prozesuan bertan kudeaketa eta gobernantza hobetzeko zehaztutako jarduerak gauzatzeko lankidetza-proiektuak martxan jartzeko.
- Kirol-parke berriaren aurreproiektuan deskribatutako jarduerak egikaritzeko proiektuak abiaraztea.
- Lankidetza-proiektuak gauzatzeko lantaldeak abiaraztea.

ERANSKINAK

1. eranskina. Jarduera-proposamenen xehetasunak.

2. eranskina. Espazioen araberako konponbideen planoak.